



# ttipi-ttapa



Jexux LARRETKEA → 3

Makrobiotika aholkularia

2015eko apirilaren 2a | XXXV. urtea | 635. zenbakia

[www.ttipi.eus](http://www.ttipi.eus)

**TTIPI-TTAPA → 17**  
Gizarte intereseko deklaratu  
izan da Ttipi-Ttapa Fundazioa

**ERREPIDEAK → 10**  
N-121-Ako segurtasuna  
hobetzeko neurriak

**ARKUPEAK → 21**  
Soinketa Besta apirilaren  
9an Donezteben

**SENPERE → 33**  
Tuberkulosiak jotako  
200 behi hilko dituzte

**KIROLA → 36**  
Baztan-Errekako Laxoa  
Txapelketa abian



## Euskal Herriko Idazleen Biltzarra apirilaren 6an Saran

Liburu aurkezpenez gain, Lehen Mundu Gerlaren inguruan erakusketa izanen da. → 34



ERREPORTAJEA → 4-5

# Erran.eus jaio da

Xorroxin Irratiak eta Ttipi-Ttapa aldizkariak elkarlanean **erran.eus** ataria paratu dute martxan, egunero-egunero eskualdeko informazioa herritarrekin partekatzeke. Eta guztia hainbat euskarritan

eta euskaraz. Xorroxin Irratia zuzenean entzun eta Ttipi-Ttapa aldizkaria irakurtzeko aukera ere izanen da webgunean. Berrikuntza nabarmena, hala ere, komunitatea da, eskualdeko herritarrei

eta gizarte, kultur nahiz kirol elkarteei eskainiko zaien txokoa. Komunitatean horiek guztiek izanen dute albiste eta hitzorduak, argazkiak, bideoak zein iritziak zabaltzeko aukera.



### Udaberriko Azienda Feriaren bueltan, Gasnaren Astea antolatu dute Baztanen

Baztango Udaberriko Azienda Feria apirilaren 10ean egingen da aurten, baina hori baino lehen, *Bertakoa Baztangoa* marka zabaltzeko asmoz, Gasnaren Astea antolatu dute. Apirilaren 2tik 9ra gasna edo esnekiekin zerikusia duten jakien dastaketak, gasna erakusketa, Baztango gasnategietara bisitaldiak, solasaldia eta tailerra egingen dituzte.

### XI. Berako Maratoi Erdia apirilaren 19an

Lasterketak duen arrakastaren leku-ko, eskuragarri jarritako 525 dortsalak 50 minutuz agortu ziren. Ibilbideak 21 kilometro eta 2.714 metroko desnibela izanen du. →37

ZOKKETAK → 42



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera

# EUSKALTZAINDIA XXXII. SARA KO IDAZLEEN BILTZARREAN 2015eko apirilaren 6an



## LIBURU AURKEZPENA



### Babnar deitu Salbaiak

Dourisbourek idatzia  
Jean Elizalde "Zerbitzari" k itzulia  
Paratzailea: HENRI DUHAU



### Mongongo Dassanzaren idazlanak (1692-1892)

Paratzailea: TXOMIN PEILLEN



### Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942

Egilea: NATALIA ZAÏKA



iker - 31

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo [www.berakoagenda.net](http://www.berakoagenda.net)

# apirila

## berako agenda

**1** asteazkena  
**UDABERRIKO KONTZERTUA**  
18:00 • Kultur Etxean  
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

**11** larunbata  
**HIP-HOP / ZUMBA MASTERCLASS**  
18:30 • Toki Ona Kiroldegian  
Prezioa: 2€ • Antolatzailea: Urdi Bera

**18** larunbata  
**UDU DANTZAK SAIOA / TXAPELKETA**  
18:00 • Toki Ona Kiroldegian  
Prezioa: 2€ • Antolatzailea: Urdi Bera

**17** ortziralea  
**MEDITAZIO SAIOA**  
(Mireia Martinez)  
18:30 • Beralandetan  
3€ bazkideak eta 6€ bazkideak ez direnak  
Izena emateko: [info@bidazi.org](mailto:info@bidazi.org)  
Antolatzailea: Bidazi

**25** larunbata  
**BERA KANTARI**  
19:00  
Illeketako zubian

**25** larunbata  
**KONTZERTUA: Mikel Urdangarin**  
20:00 • Kultur Etxean  
Sarrera: 6€

**BERAKO MENDI MARATOI ERDIA**

**18** larunbata  
14:30+15:30 • Abiadura eskalada txapelketaren kanporaketak eskolako frontoian • Izena emateko: [manttaletaldea@gmail.com](mailto:manttaletaldea@gmail.com)  
17:30 • Aizkolariak | 18:30 • Abiadura eskalada (finala)  
20:00 • Dokumental proiektzioa: **Muztagh** (7.546 m.) (Iñaki Razkin) • Beralandetan

**19** igandea  
09:30 • Irteera  
13:30 • Sari banaketa eta opariaren zozketa  
Argibideak: [www.manttale.com](http://www.manttale.com)

**LIBURUAREN EGUNEKO OSPAKIZUNA**

**23** ortzeguna  
**HAURRENTZAKO EKITALDIA: "Marikalanbre bizitzaren laborategian"** 4-8 urte  
Ondotik, Komiki Lehiaketako sari banaketa

**ZER GERTATZEN DA EKIALDE HURBILEAN? KURDISTANGO HERRIARIEN GARRANTZIA**

**31**tik **12**ra apirilaren  
**ARGAZKI ERAKUSKETA: "Kurdistan gaineko 6 begirada"**  
Kultur Etxeko erakusgelan  
Asteartetik igandera (igande arratsaldez itxia)  
10:00-12:00 eta 16:00-19:00

**14** asteartea  
**SOLASALDIA: Aniztasuna eta dibertsitatea Ekialde Hurbilean (Manuel Martorell)**  
19:00 • Beralandetan *gazteleraz*

**16** ortzeguna  
**SOLASALDIA: Kurduen garaia ailegatu ote da? (Karlos Zurutuza)**  
19:00 • Beralandetan *euskaraz*

**18** larunbata  
**KONTZERTUA: "Iksandarraren bidea" kontzertu didaktikoa**  
19:00 • Kultur Etxean

35 urte zituen minbiziak bere bizitza arrisku bizioan jarri eta itsu gelditu zenean. Makrobiotikari esker gaixotasuna gainditu, ikusmena berreskuratu eta bizitza ulertzeko

ikuspegi berri bat hartu zuen. Hogei urte igaro dira geroztik eta bere bizi filosofia zabaldu nahian dabil. Zarautzen du kontsulta eta hitzaldi eta ikastaroak ere ematen ditu. Norbere

buruaren jabe izateko premia azpimarratzen du eta «buru eta gorputzaren arteko oreka lortzea» ezinbertzekoa dela dio, «gorputzak ematen dituen abisuak entzuten jakiteko».

Jexux LARRETXEIA | Makrobiotikako aholkularia

# «Gaixotzeko bezalaxe sendatzeko gai gara, oreka da horretarako gakoa»

E. IRAOLA | ARANTZA

**Makrobiotika ez ezagutzetik, burubelari hortan aritzera. Nolatan?**

Osasunez hain estu egon eta beti sinistu izan duzun medikuntzak zuretzako konponbiderik ez duela ikusten duzunean, ona izan litekeela uste duzun horri gogoz heltzen diozu. Ez nuen galtzekorik. Makrobiotikari esker, Frantziako Saint Gaudens zentroan leuzemia bateatik sendatu zen pertsona baten berri izan nuen eta pentsatu nuen berak egin bazuen, ni aranztarra eta burugogor xamarra izanda, nik ere aukerak banituela. Sei hilabeteren buruan gaixotasun arazoak gelditu eta neurri handi batean ikusmena berreskuratu nuen. Horrek erakutsi zidan, bizitzan bide horretatik egin behar nuela aurrera. Gaia-aren inguruan formatu eta orain ikasitako hori zabaldu eta bertzeelaguntzen saiatzen naiz.

**Zer da makrobiotikak eskaintzen duena?**

Naturak eta unibertsok jartzten dituen arauetan bizitzea da makrobiotikak proposatzen duena. Makrobiotika berez prebentzioa da, bizitza orekatu bat izateko bidea. Norberak bere gorputza ezagutu eta aurrera eramateko modua da. Bakoitzak bere intuizioa, berak sentitzen duena egin beharko luke. Gaixotasunei aurre egin



UTZITAKO ARGAZKIA

Jexux Larretxeia aranztarra Zarautzen duen kontsultan aritzen da aholkulari lanetan.

beharrean, jatorria non dagoen topatu beharko genuke.

**Azken aukera ez, lehen behar luke izan...**

Makrobiotika jende askok gaixotasunak sendatzeko ezagutu izan du eta ez du horrela izan behar. Gu hiru gorputz gara: gorputz fisikoa, emozioei loturikoa eta psikikoa: genetika, izakera, eboluzioa... Hiru arloetan dugu zer landua. Bate-tik, gorputzari ez zaio hitz egiten uzten, gaitzei lotutako sintomak pastillen bidez ezkututzen ditugulako. Fisikoa ongi ez badago, emozionalki ere ez zara ongi egonen. Eta gainera, gure alderdi psikikotik ere %10 bakarrik ezagutzen dugu. Hiru gor-

## ALDAKETA

«Gauza berriak ezagutzeko beldurrik ez edukitzea. Lurrarekiko lotura berreskuratu behar dugu, gure oinarrietara itzuli, inguruan ditugun adinekoen jakindurietatik edan, elikagai berriak probatu eta gure barruko bideetan barna ibili... Gure burua ezagutzea da gakoa, gorputzari hitz egiten utzi eta erraten diguna entzun eta ulertzeko modua bilatzea.»

putz horiek landu eta orekatuta, bizitzako arlo desberdinetan ditugun gabeziak gaindi ditzakegu. **Ohitura aldaketa eskatzen du horrek...**

Eta horixe da jendeak nahi ez duena. Ohiturak aldatu gabe segi nahi dugu baina prebentzioko bidez egitea oso zaila da aldaketarik egin gabe. Aunitez uste du makrobiotikarekin ezin dela bizitza arrunta egin eta hori ez da horrela. Kontua da makrobiotikara beranduegi hurbildu ezker helburuak lortzeko kaltegarriak diren gauza aunitz utzi behar direla bolada batez.

**Aurreiritzirik bada?**

Makrobiotikaren inguruan jendeak daukan lehe-

nengo jarrera da, hau ez dute jaten, hura ez dute jaten eta hori ez da horrela. Makrobiotika ez da mugak jartzan dituen, norbera baizik. Bakoitzak ezagutu beharko lituzke zeintzuk diren bere gorputzak onartu edo asimilatzen ez dituen elikagaiak. Osasuna bertzeen esku utzi beharrean, norberak arduraz zaindu behar luke.

**Gizartean aldaketa nabari da?**

Makrobiotika gizartean indarrez ari da sartzen eta medikuntzan ere aldaketa nabari da, lehen itxia zegoen atea zabaldu baitute. Baratze ekologikoak jarriaz, ikastaro makrobiotikoak eginaz... kultura hori herri txiki askotan ere zabaltzen ari da. Nabarmen ari garabidea irekitzen eta ni oso itxaropentsu nago alde horretatik. Batez ere jende gaztean ikusten delako aldaketarako gogoia. **Zein da eman beharreko lehen pausoa?**

Gauza berriak ezagutzeko beldurrik ez edukitzea. Lurrarekiko lotura berreskuratu behar dugu, gure oinarrietara itzuli, inguruan ditugun adinekoen jakindurietatik edan, elikagai berriak probatu eta gure barruko bideetan barna ibili... Gure burua ezagutzea da gakoa, gorputzari hitz egiten utzi eta erraten diguna entzun eta ulertzeko modua bilatzea.

The screenshot shows the Erran.eus website interface. The main headline reads: "Xorroxinek eta Ttipi-Ttapak bat egin dute erran.eus plataforma digitalean". Below the headline is a photo of a panel discussion. The sidebar on the right lists events: "BEREZIAK" (Nafarroa Oinez 2015, Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2015, Korrika 19) and "XORROXIN IRRATIA" (entzun zuzenean). The "TTIPI-TTAPA" section lists links for PDF format, audio, video, and other resources.

Informazio trukerako bidea eskaintzen duen komunikabidea da, formatu desberdinetan eskaintzeko aukera ematen duena.

**GIZARTEA** → INTERNETEKO ATARI BERRIA JAIKO DA

# Erran.eus eskualdeko informazioa jaso eta emateko ataria

Xorroxin irratia eta Ttipi-Ttapa aldizkariak elkarlanean eraikia, herritarrekin partekatzen

Martxoaren 23an aurkeztu zen Donezteben interneteko atari berria. Komunikazio elkar-trukerako tresna izateko helburua duena. Horregatik, eskualdeko herritar eta taldeek ere

ahotsa izanen dute Komunitatea izeneko atalaren bidez. Hango eta hemengo informazioa bilduz, eskualdearen erakuslehoia izateko jaio da Erran.eus.

## E. IRAOLA

Martxan da Erran.eus ataria. Eskualdeko informazioa euskaraz jaso eta emateko Xorroxin irratia eta Ttipi-Ttapa aldizkariak elkarlanean eraikitako gunea, herritarrekin partekatzen. Ceder-

na-Garalur, Udalbiltza eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dute abiatzeko.

Codesyntax enpresak garatu du web gunea eta Tokikom euskarazko tokiko hedabideen elkarteak saretu as-

mo duen herri komunikabideen arteko plataforma digitalaren baitan kokatzen da. Nafarroako Mendialdeko webgunea izanen da Erran.eus ataria. Izan ere, proiektua Baztan-Bidasaldeko arrotik abiatzen

den arren egitasmoa zabalik gelditzen da, Nafarroako mendialdea proiektu honen inguruan artikulatzeko asmoa baitago.

Egunero egunero, eskualdearen berri emateko helburuarekin sortu da. Xorroxin irratia zuzenean entzuteko aukera izanen da bertan, eta irratia atalean bilduko diren audioak nahiera entzuteko ere bai. Ttipi-Ttapak idatzitako albisteak irakurri, bideo eta argazkiak ikusi eta urtebetetze eta merkatu ttikia bezalako zerbitzuak kontratatzen aukera ere izanen dute bisitariek. Internetek ohiko kazetari-tzaren euskarrien zurruntasuna irauli egin duenez, ikus-entzunezko informazioa eta informazio idatzia eskutik joango dira atari digitalean, eta informazioa gertatzen ari den unean bertan eskaintzea izango da helburuetako bat.

Eta ez hori bakarrik, hango eta hemengo erra-

## BI NORABIDETAKO KOMUNIKAZIOA

Erabiltzaileek informazioa kontsumitzetik haratago, informazioa partekatzen aukera ere izanen dute Komunitateko kide bihurtzen badira.

nak biltzeaz gain, zer esana dutenei txoko bat ere eskaini nahi baitie atari berriak.

## Pauso berria aspaldi hasitako ibilbidean

Erran.eus ez da hutsetik abiatzen den proiektua, urteetako eskarmentua duten komunikabideak baitira atari berriaren atzean daudenak. Norbere ezaugarriak uko egin gabe, elkarrekin fruitu berri bat sortu dute. Izan ere, Xorroxin Irratia 1981etik emititzen du Baztan-Bidasaldean eta Ttipi-Ttapa aldizkaria ere 1981ean sortu zen eta 1990ean eman zuen hamabostekari izateko urratsa. Euskal komunikabideen artean Interneteko saltoa eman zuen lehena ere izan zen, 1996an. Alde horretatik, web gune berriak Xorroxin Irratia zuzenean aditzeko eta 1998az geroztik Ttipi-Ttaparen ale historikoak kontsultatzeko aukera ere ematen du.

## Edukiak modu argian

Horrekin batera, eskualdeko herri bakoitzak bere atala izango du, eta bertan herriarekin loturiko informazioa ordenatuko dugu. Eskualde mailako beste zenbait gai, ordea, gaiaren arabera sailkatuko ditugu. Eta urte hauetan guztietan Ttipi-Ttapa aldizkariak sortu duen hemeroteka oparoa ere paratuko da.

## Komunitatea

Komunitatea izeneko leihoa da, erran.eus-ek dakarren berrikuntza nabarmenetakoa. Erabiltzaileei informazioa kontsumitzetik haratago, informazioa partekatzeko aukera emanen dien tresna da komunitatea. Bertan, eskualdeko herri-tar, talde, elkarte edota erakundeetako partaideei ahotsa eman nahi zaie.

Foro libre eta irekia izanen da beraz, asteko 7 egunetan 24 orduz marxan izango dena. Elkarrekiko errespetua izanen da baldintza bakarra, karaktere kopuru edo ordutegi jakin batek ez baitu mugatuko. Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzaldea eta Xaretan interesa eragiten duten albiste eta hitzorduak partekatzeko aukera izanen dute komunitateko kideek, baita argazki, bideo eta iritziak zabaltzeko ere.



## Bereziak

Gai baten inguruan sortutako eduki guztiak toki bakarrean bila ditzakezue berezietara jota. Gainera, talde hauetako edukiek fondo grisa dute hasierako orrian, errazago berezi ahal izateko.



## KOMUNITATEKO KIDE BIHURTZEKO PAUSOAK

- 1 Sartu Erran.eus atarian eta klikatu goi menuan agertzen den **sartu** botoia.
- 2 Ireki den leihoan, **izena-eman** jartzen duen tokian sakatu edo **sare sozialeko kontuarekin** erregistratzeko aukera ere bada.
- 3 Komunitatean edukiko duzun **erabiltzaile izena, pasa-hitza eta emaila** finkatu.
- 4 **Mezu bat iritsiko** zaizu izena ematerakoan idatzitako posta elektronikora. **Kontua bertatik aktibatu** behar duzu.
- 5 Arduradunek eskaera aztertu ondoren **onar-tuko dute zure kide izaera**.
- 6 **HASI INFORMAZIOA ZABALTZEN!**

## Merkatu ttikia eta urtebetetzeak

Orain artean ttipi.eus atariak eskaintzen zituen zerbitzuak ere eskuragarri egonen dira. Hortaz, Ttipi-Ttapa aldizkarian iragarkiren bat jarri edota norbait zoriondu nahi denean, erran.eus atariko zerbitzuen atalean egin liteke erosketak.



## Eguraldia

Ametek emandako datuak izanen dituzue ikusgai eta Joxe Landaren eguraldi iragarpena ere bertan egonen da entzungai.



## Xorroxin irratia zuzenean eta nahieran

Irratia zuzenean entzuteko aukera eskaintzen du web-guneak, Xorroxin momentuan emititzen ari den saioaz gozatzeko. Eta ez hori bakarrik, elkarrizketak, kolaborazioak eta saio osoak ere nahi adinatan eta norberak nahi duenean entzuteko aukera ere izanen da. Audio biltegi bat osatuko baita, saioek eman duten hoberean bertan jasoz.



## Ttipi-Ttapa aldizkariak pdf formatuan

Papereko edizioa topatzen ez baduzu edo duela urte batzuetako aldizkaria ikusi nahi baduzu, orain baduzu aukera. 1998az geroztik Ttipi-Ttapak argitaratu dituen aldizkari guztiak kontsultatu ditzakezu eta erran.eus atarian. Pdf formatuan daude eta zuzenean ikusi edo deskargatzeko aukera ere eskaintzen da.



## Eskualdeko hitzorduen agenda

Eskualdean egitekoak diren kultur, kirol eta gizarte arloko ekitaldien berri jasoko da agenda atalean. Hasierako orrian, aste horren barruan egingen diren ekitaldien laburpen bat ikusteko modua dago eta agendan klik eginez gero, xehetasun gehiago eta datozen hilabeteetako aurreikusita dauden hitzorduak ere bistaratzeko aukera izanen da.



## Bilaketak egiteko erraztasunak

Goi menuan bilatzaile bat txertatua du web-orriak eta horren bidez gai zehatz baten inguruan zabalduetako informazio guztia jasotzeko aukera izanen da. Eta horretaz gain, eskualdeko, gaika, hedabidearen arabera... ere bilaketak egiteko aukera eskaintzen du.

## Eta etorriko direnak...

Bere ibilbidean aurreneko pausoak ematen ari da erran.eus eta pixkanaka harriminta gehiago jarriko dira martxan datozen hilabeteetan. Denon elkarlanarekin, hango eta hemengoak jasoz eskualdeko komunikabide sendo bat osatzeko.



**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Maitasunez

**M**aitasuna sentimendu bizia da. Maitasuna indartu dezakegu, edo bat-batean hautsari putz egiterakoan bezala desagerarazi. Lagunak maita ditzakegu, gure zakurra, haurrak, bizitza, gure herria,... Azken hau maite dudala onartu beharrean nago, baina batzuetan nahiago nuke andaluzia izan, esaterako. Gure herriko herriarrak estalpean bizi gara, eta ez diot egoera politikoagatik, literalki zerutik behera datorkigunagatik baizik. Estalpean bizitze honek film mutu espresionistetako pertsonai bilakatzen gaitu. Zuri beltzeko pertsonai tristeak gara zeru arrearen azpian, keinu ilun bezain okerrak eginez. Baina mi-resmena mantenduz maitasuna indartzen den neurri berean eutsiko diogu esperantzari. Eta pentsatuko dugu Euskal Herriak laster kenduko duela txapela beltza.


«Zuri beltzeko pertsonai tristeak gara zeru arrearen azpian, keinu ilun bezain okerrak eginez»

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Kontraesanean murgilduak

**I**rakurtzea bezainbetez futbola gustatzen zaidala erraten dudanean, kontraesanean omen nago. Eta ospitaleko atarian zigarroak bata bertzearen gibeletik erretzen duten mediku-erizainak? Eta jolasparkean elkarrekin gaztelaraz sueto solastan duten guraso euskaldun euskalzaleak? Eta egunkari serio, progre nahiz kontserbadoreetako *relax* iragarkiak? Eta hain erixko dauden Osasunazaleak?

## Nabarmentzekoak



**Iñigo ARREGI**  
Errekako duatloi taldekoa

Euskal Herriko duatloi zirkuituan lehiatzen ari da doneztebarra eta orain artean lortutako bigarren, bosgarren eta hirugarren postuei esker, txapelketa horretako liderra da gaur egun.



**Xanti UTERGA**  
Alkategai Donezteben

Normalean erremonte arloan nabarmendu da *Txi-bi* Uterga, baina aldi honetan, udal hauteskundetan EHBilduko alkategai izanen dela da aipatzen ari dira han-hemen.



**Inaxio PERURENA**  
303 kilokoarekin ezin

Denbora batez geldiegi egon ondotik, 303 kiloko harriarekin saiatu zen leitzarria martxoaren 22an Asteasun, bitan saiatu ere, baina ezin izan zuen bizkar gainean berdindu.

**Atzera begira → 2005-IV-7 / TTIPI-TTAPA 395 zk.**



### Gari Larraburu eta Joana Hernandorena, Sunbillako tandemak

Orain ere ez da arrunta, baina duela hamar urte oraindik arraroagoa zen tandemak ikustea gure inguruan. Sunbillako Gari Larraburuk eta Joana Hernandorenak aipatu zigutenez, «egia erranda tandemak hagitzen arraroa da hemen inguruan eta joaten garen tokira joanda, mundu guztia begira gelditzen zaigu. Aunitzek oihukatzen digute, *eehh, gibeletako ez dizula erreleborik ematen!*. Bizikletarekin alderatuz tandemak duen desberdintasun nagusia, berriz, «ez diozula inori esperatu behar. Gibeletako egun txarra baldin badu lasaia joaten ahal da eta aitzinekoak tiratu. Edo aldrebes. Biek sufritzen dugu berdin».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebexa **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortziritako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua

**MEKNA**  
MEZENASGOA KULTURA NAPARROA



## Kolaborazioak

### Zabor uholdea

Luis GARDE

Lehenengo egunean telebista espainiarraren bigarren kanaleko literatura programa bat ikusteari ari zitzaien elkarrizketa bat, bere "Hombres buenos" izenburuko azken nobelaz hain zuzen. Inoiz ere ez dut irakurri idazle famatu haren nobela bat; haren iritzi artikulua ere ez ditut gustukoak, are gutxiago nazionalismo espainiarraren aldarrikapenekin tematzen delarik. Revertetek solasteko erabiltzen duen tonu mingotsa eta kritikoa, hala ere, erakargarri suertatzen zait. Kontua da, nobelaren izenburuaren harira, aurkezleak galdetu ziola idazleari: "Zu gizon ona zara?". Idazleak ezetz erantzun: "Ez naiz gizon ona, baina jakin badakit bereizten gizon onak nor diren". Aurkezleak idazleari zergatik ez duen ontzat jotzen bere burua. Eta idazleak erantzun: "Nik jada badituz begietan argazki txar sobera gizon ona izateko". Erantzun ederra. Nire aldetik, Reverte ez bezala, ez naiz ibili hogei urte gerrako korrespondentsal lana egiten, beraz ez dut paradarik izan hainbertze irudi txarra erretinetan metatzeko; baina aspaldi honetan iruditzen zait zenbat eta gehiago bazterretarat begiratu, orduan eta zaborra eta kaka gehiago sartzen zaidala begietatik. Eta ez naiz aipatzen ari gure erreken ertzak eta parkeen belarra (nahiz eta horiek ere...).

Betidanik erran dut gure Nafarroako botere faktikoak honako hiru hauek direla: UPN, CAN, Osasuna. Gure ustezko identitatearen zutabe mugaezin, ordezkaezin, distiratsu (gure sakelei esker, noski)»

Betidanik erran dut gure Nafarroako botere faktikoak honako hiru hauek direla: UPN, CAN, Osasuna. Gure ustezko identitatearen zutabe mugaezin, ordezkaezin, distiratsu (gure sakelei esker, noski). Ez, gure "esentziak" haragiztatzen dituen futbol talde haren kontra ez nuke deus izanen, baldin eta politikariek (alderdi guztietakoek, honetan berdintsu) behartuko ez banindute futbolari haiek aberasten laguntzera. Zaborraren uholdeak bai Osasuna bai CAN eraman ditu birziklatzerik ez dagoen hondakindegira batera. Oraindik ez ditugu ikusi afera horien azken kapitulu nazkagarriak. Nahiko nuke bi "entitate" horiek dominoko fitxak izatea, azkenean UPN lapur-haitzulo hura beurekin zabortegira eraman dezaten. Ikusiko. Hori bai dela osasun kontua. Osasun demokratikoa. Bitartean, eta oraingoan Reverterek bat eginez, gizon ona izan ez arren, jakin badakit emakume eta gizon onak bereizten: ehuneko zero zabor ekoizten duen gizarte bat eraiki nahi duten horiek. Lasai eta pausuz pausu. Haiekin batera, zabor uholdeari eutsiko diogu.

«Betidanik erran dut gure Nafarroako botere faktikoak honako hiru hauek direla: UPN, CAN, Osasuna. Gure ustezko identitatearen zutabe mugaezin, ordezkaezin, distiratsu (gure sakelei esker, noski)»

### Maitatu eta utzi zu maitatzen

Amaia GOÑI YARNOZ

Malerrekako Osasun Etxeko pediatra

Gure bizitzan garrantzi aparta daukate ditugun erlazioek, eta gure erlazioen kalitatea guztiz erlazonatuta dago guk daukagun APEGO edo LOTURAREN kalitatearekin.

Apegoa binkulo afektiboa da, sortu eta bizitzako lehenengo hilabete-urteetako zaintzailearen (gehienean gurasoen) sentsibilitatean oinarritzen dena: haurrak elkar-egotea eta kontaktua bilatzeko seinaleak egiten dituen zaintzailearen erantzunen arabera garatzen da. Umearen garapenerako zihurtasuna ezinbestekoa da, baita maitatua, ulertua eta entzuna sentitzea (guztionez garrantzitsua bada pentsa umeentzat) ere. Hala sentitu daitezen, funtsezkoa da zaintzaile hurbilerraz bat, maitakorra, sentikorra eta umearen beharrei modu egokian erantzuten diona.

Garrantzitsua da bere garapenerako, baina baita bere ondorengo erlazioetarako ere: bizitzako lehenengo hiru urteetan bizitzen dugun erlazonatzeko modua (apegoa) inkonziientean gordetzen da, gure ondorengo erlazioen oinarri eta ispilu bihurtuz, nahiz eta askotan gure konszienteak ez izan.

Honekin gutxi izango ez balitz, azken ikerketen arabera haurren osasunean ere izango ditu ondorioak, erlazonatuta baitaude apego edo lotura zihurra eta osasun fisikoa.

Helduak garen partetik prozesu terapeutiko baten laguntzaz guzti hau konszientera pasa dezakegu, gure portaeran eta gure sentitu eta erlazonatzeko eran aldatuta onuragarriak bilatuz. Baina oraindik interesgarriagoa dena: gure seme-alabei apego zihurragoa sortarazteko jokabideak ere ezagutu/ikas ditzakegu. Errezago jartzearen, hona hemen 2011an psikiatria aldizkari batean publikatutako ikerketa baten emaitzak. Seme-alaben pertsonalitate garapen onuragarriekin gehien erlazonatutako gurasoen 12 jokabide:

- umea animatu eta goratzea
- denbora asko pasatzea berarekin
- maitatua dela sentiaraztea
- zigorrak gehiegietan ez erabiltzea
- adeitasunez hitz egitea
- umeen autonomia sustatzea
- lasaitasuna mantentzea
- komunikazio ona edukitzea haurrarekin
- haurrarekiko jarrera baikorra edukitzea
- umearekiko atentzioa eta dedikazioa izatea
- aktibitate atseginak partekatzea
- jarrera eredu bezala miretsia izatea.

Ez dirudi hain zaila eta dituen onurak ikusita...zeren zain zaude?

«Bizitzako lehenengo hiru urteetan bizitzen dugun erlazonatzeko modua (apegoa) inkonziientean gordetzen da, gure ondorengo erlazioen oinarri eta ispilu bihurtuz»







Bagoaz, baguzi, bagazi  
ttipi-ttapa haziz!

**MEKNA**

MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

2015EKO  
**ERRENTA**  
**AITORPENEAN**  
BERRESKURATUKO DITUZU



Deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **bagoaz@ttipi.eus** helbidera

### Prentsatik bildutakoak



«Hemen ibiltzeko ez da inolako esperientziarik behar. Adibidez, aste honetako egun batean 400 haur izan genituek eta kainoia, via ferrata... egin genituen. Bi pendulo-salto ere baditugu, ttikientzako edo honetan hasi nahi dutenentzat, puenting modukoa. Megasaltoa ere hor dago, 100 metro altuera eta 45 metroko jauzi bertikalarekin, ikusgarria!».

**Mattari ALTZUARTE**  
Baztan Abentura Park  
D.NAVARRA 2015.03.20



«Kolpe bakoitzean izugarrizko garrantzia dauka arnasa kontrolatzeak. (...) *Strongman* horietako bat etorri zen gure etxera, gure jardunean interesa zeukala azalduta. Probatu egin nahi zuen harria, eta kolpetik kolperako kontrol horrekin geratu zen bereziki harrিতa. Oso indartsuak dira den-denak, baina mugimendu motzekoak».

**Inaxio PERURENA**  
Leitzako harrijasotzailea  
BERRIA 2015.03.21

### 11 galdera labur

#### Nor dugu Iraitz Otxandorena?

Haur Hezkuntza ikasten ari den 22 urteko lekaroztarra (Baztandarra).

#### Zein hitzek definitzen zaitu hobe- bekien?

KA-z hasten diren hitzek xarman-ki deskribitzen nautela uste dut, hau da, kalamidade, kalaka eta kalanbre hutse den mutile naiz!

#### Zein afizio dituzu?

Euskal kantak eta euskal dantzak nire bizitzaren oinarri eta zutabetzat hartzen ditut. Batez ere, kantu zaharretara amorratua naiz.

#### Nondik datorkizu afizioa?

Musikarako afizioa txikitatik helduzait, herriko plazetan musika entzuten eta jendeak nola dantzatzen zuen ikusizikasinutuen kantak.

#### Euskal dantzarik gustukoena?

Dantza zehatzik ez dut! Erritmo asko eta arintasuna eskatzen duten dantzak ditut gustukoan, Adibidez, banako, fandangoak, etab.

#### Tradiziozalea edo pauso modernoak erartu behar dira?

Gaur egun dantzaren

mundua asko aldatu den arren, erran beharra dut bi estiloak asko gustatzen zaizkitela, beti ere muga bat jarritz baina oso zaila izaten da batzuetan neurria hartzea.

#### Euskal abeslari eta kanturik gustukoena?

Aunitz gustoko baditut ere, Pantxoa eta Peioren "Greziako itsasontzia".

#### Kantuak entzuten edo kantuan arituz gustorago?

Entzutea gustuko badut ere, dudarik gabe kantatzen egotea nahiago dut! Trebezia ote dudan ordea... Oso trebea naiz mingainari buelta asko ematen!

#### Kantu zaharrak abesteko mahai edo tokirik hoberena nongoa?

Tokiak baino giro politean egoteak garrantzi handiago duela uste dut! Beti ere ondoan edari goxo batez akonpainaturik!

#### Baztango gustuko txoko bat?

Elizondoko Intza ostata! Hor biltzen baikara baztandar saltsero eta kalaka guziek!

#### Amets bat?

Eskuara normalizatea!



**Iraitz OTXANDORENA** → Lekarozko gaztea

## GIZARTEA

ERREPIDEAK → NAFARROAKO GOBERNUAREN PROPOSAMENA N-121-A ERREPIDERAKO

# Errepidearen segurtasuna hobetzeko neurrien lehen fasea proposatu dute

2 milioi euroko kostua izanen luke

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuak N-121-A errepideko segurtasuna hobetzeko neurri batzuk abian jarriko ditu berehala bi milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Neurri horiek eta N-121-A errepideko Funtzionamenduaren Azterketako ondorioen aurrerapenak, iragan irailean esleitutakoa eta maiatzaren amaieran bukatzea aurreikusten dena, Sustapeneko kontseilari Luis Zarralukik azaldu zituen martxoaren 24an egindako prentsako agerraldian. Jarraian, inguruko alkatetarako deitu zituen azterketen emaitzen xehetasunak emateko.

Berehala hartuko diren neurriak, alde bateatik, kontserbazio-mailako lau dira, 1,7 milioi euroko kostua dutenak, eta 260.000 euroko bi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

N-121-A errepiderako hainbat neurri proposatu ditu Gobernuak.

de-segurtasuneko beste neurri batzuk. Kontserbazio neurrietan garestiena, Zozaiako baskularen eta Larrakaitzeko tunelaren arteko zatian zola egokitzea da, 896.306 euroko aurrekontuarekin. Horretaz gain, Etulain inguruan errepidea zabalduko da, Burutainen zoruaren asentua konponduko da, buztin plastikoak inguru hori sarri samar hondoratzea ekartzen baitu eta Lizasoko bi-

degurutzea hobetzea aztertzen ari dira, platafoma handituz eta erdialdeko errei bat sortuz sartu-irteteko biraketak egiteko. 297.807 euroko kostua izanen du azken lan honek.

## 260.000 EUROKO HOBEKUNTZAK

Kontserbazioko neurri horiez gain, bide-segurtasuneko beste batzuk egingen dira berehala. Haien artean, kamioiak bide geldoetan

aurreratzeko duten egungo debekua zati gehiagotara zabaltzea aztertzen ari dira, bai eta aurreratzeko debekua jartzea ere zirkulatzen ari diren noranzkotik hurbil bide geldo bat dagoen zatietan edo neurritzko jaitsiera dagoen tokietan (kamioiek abiadura egokia duten lekuetan).

Bertzalde, sartzeko eta irteteko egiturak galtzadatik hurbil oztopo oso zurrinak bihur-

tzen diren bederatzi tulleto 36 ahoak babestea proposatzen da (bakoitzetik 4). Babes horren helburua bidetik ateratzeagatik izan daitezkeen istripuen larritasuna murriztea da, azpiegitura horiei gaur egun dutena baino euste-maila sendoagoa emanez. Gainera, egun dauden euste-sistema horietakoren batean jardungo da, bere garaian diseinatu ziren moduan, arriskutsuak gerta baitaitezke istripua dagoenean ertz zorrotzak dituztelako.

Puntu horretan, aipatu behar da azterketak azpimarratzen duen alderdietako bat honako hau dela: bideko zati gehiengan gidariak ez dute adierazitako abiadura errespetatzen, horrek istripu-mailan eragin zuzena du, eta hori gidariaren erantzukizuna da.

Epe ertain eta luzera begira hartu ahal daitezkeen zenbait neurrien berri ere eman zuen Zarralukik.

 **Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
iturgintza • gasa  
kalafakzioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

 **EREANDORREA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA

# KATEA-BIKE



bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!

CONDOR ORBEA  
MASSI  
SCOTT MERIDA

 **ERROTAZAR**

harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 • BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**SMAZIZOR** edariak

EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

T./F. 948 631 557  
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA  
eposta: maziziorenper@gmail.com

GIZARTEA → KURDISTANGO HERRIAREN GARRANTZIAZ

# Ekialde Hurbilean gertatzen ari dena ezagutzeko ekintza ugari

Argazki erakusketa zabalik da Kultur Etxean apirilaren 12ra bitarte

## TTIPI-TTAPA

Zer gertatzen ari da Ekialde Hurbilean? Kurdistango herriaren garrantzia izenburupean zenbait ekitaldi antolatu dituzte egunotan. Hasteko, martxoaren 31tik apirilaren 12ra arte zabalik da *Kurdistan gaineko 6 begirada* izeneko argazki erakusketa Kultur Etxeko erakusgelan. Asteartetik igandera ikus daiteke 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (igande arratsaldez itxia).

Apirilaren 14an, asteartean 19:00etan Beralandetan *Aniztasuna eta dibertsitatea Ekialde Hurbilean* solasaldia eskainiko du Manuel Martorellek gaztelaniaz.

Apirilaren 16an, ortzegunarekin, ordu eta

leku berean, *Kurduen garaia ailegatu ote da?* solasaldia eskainiko du Karlos Zurutzak euskaraz.

Bukatzeke, hilaren 18an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean *Iksandarraren bidea* kontzertu didaktikoa eskainiko dute.

## Pilota jaialdia

Apirilaren 3an, ortziral arratseko 9etatik aitzinera pilota jaialdi handia izanen da Eztegarra pilotalekuan. Lehenik, afizionatu mailan, Mitxelena eta Iñigo Martinez, Errandonea eta Olaizola III.aren kontra ariko dira. Ondotik, Binakako Promozio Txapelketako finalerdietako bigarren jardunaldia-ri dagokion partida jokatuko dute Altuna eta Rezustak, Iribarria eta Merino II.aren kontra. Agara prentsa dendan aurrez salgai daude sarrerak.

## Kantu Zahar afaria

Ibardingo Mendiko sagardotegian Kantu



UTZITAKO ARGAZKIA

## 40 landare aldatu dituzte Zuhaitzaren Egunean

Ehiza eta Arrantza Elkarteak Manttale taldearekin batera, Zuhaitzaren eguna antolatu zuten martxoaren 14an. Euriaren eraginez ez zen oinezko ibilaldirik egin eta jende aunitzirik ere ez zen animatu, baina zuhaitzak landatzerakoan izan zen ategunea aprobetxatu zuten. Lizardikoborda inguruan 32 haritz eta 8 gaztainondo landatu ondotik hamaiketako ederra dastatu zuten.

Zahar Afaria antolatu dute hirugarren urtez, apirilaren 11rako. Afariaren eta liburuaren prezioa 45 eurokoa da. Partehartzaileak, berriz, Angel Mariezkurrena (antolatzailea), Zubieta-ko joaldunak, Bankako Menditarrak (abeslariak), Aitor Mendiluze eta Unai Agirre bertsolarik, Eñaut Agirre (Pernando Amezkettarren

## Ba al zenekien

Hainbat gorabehera eta eztabaida sortu dituen Iturlandetako beilatokian zerbitzua eskaintzen hasiak direla martxo hondarrean. Zahar Etxe ondokoa ere lanean ari da oraingoz.

bertsoak), Frantzisko Santxotena (eskujolea) eta Aitor Ibarra (tronpetak) izanen dira. Izenematea 948 630302 edo 670 465011 telefonotan.

## MAIATZAREN 30EAN

## Euskal Herriko Mintzalagunen Jaia herrian egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko mintzalagunen jaiak 10 edizio beteko ditu aurten, eta lehen urtean bezala, Nafarroan izanen da. Bortzirietako solaslagunak maiatzaren 30ean Beran ospatuko den eguna prestatzen ari dira burubelari. Bazkarirako izen ematea maiatzaren hasieran zabalduko da. Laster emanen dizuegu egitarauari buruzko informazio zabalagoa.

## FLASH

### Udaberriko kontzertua

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako udaberriko kontzertua eskainiko du apirilaren 1ean, asteazkenean 18:00etan Kultur Etxean.

### Hip-hop/Zumba masterclass

Urdi Berak antolatuta Hip-hop/Zumba masterclass eskainiko da apirilaren 11n, larunbatean 18:30ean kiroldegian. Prezioa: 2 euro. Apirilaren 18an, berriz, *Dantza desafio*ko saioa-txapelketa antolatu dute kiroldegian.

**Xirgil**  
Jaiak  
Jaiak Goya  
Altzate 1 - BERA  
Tfnos: 948 631 462

**elika**  
Dietetika eta elikadura  
IXIAR ANDUEZA LANZ  
Dietista-Nutrizionista  
Kolegiatu zenbakia NA221  
Itzea, 6 behe 31780 BERA  
t 948 631 283 | 645 708 512  
e. elikabera@hotmail.com

**Arturo**  
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria  
Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

# LESAKA

GIZARTEA → LEHEN BATZORDEA BILDU DA

## Sanferminak prestatzen hasiak

Kartel eta programaren azal lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte irekia

### Aitor AROTZENA

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 17ko 13:00etan akautuko da, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz.

Azalen neurria 210x297 mmkoa izanen da osotara eta kartelena 420x594 mmkoa. Derrigorrez, *Lesaka 2015 Sanferminak* ageritu beharko dute.

Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko bonoa eramanen dute, herriko ostatu, denda eta zerbitzuetan gastatzeko. Kartela argitaratu eginen da eta azaleko lehen saria programaren aituzineko azalean joanen da.

Bertze aldetik, gibelko azala aukeratzeko, Lesakako ikastetxetan ikasten ari diren 6 urte-tik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauen lanak ere apirilaren 17rako aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Irabazlearendako saria, herriko dendetan eskolako materiala erosteko 100 euroko balioa duen taloia izanen da, eta irudia programaren gibelko azalean argitaratua ikustea, noski.

Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa bat osatuko da Beheko Plaza 5eko udal bulegoan apirilaren 21etik 25era (biak barne). Azken urteetako ohiturari eutsiz, herri bozketak erabakiko du lehiaketan. Horretarako, erakusketak irauten duen bitartean, bertan, bozka emateko aukera izanen dute Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak. Honetaz gain, udalaren webgunearen bidez ere bozkatzeko aukera izanen da.

Aipatzekoa da bestak prestatzeko lehen batzordea ere martxoaren 27an bildu zela.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Tanturumairu ikastolakoak haur kantari jaialdian

Aspaldian ez zen herriko talderik plantatu Nafarroako Haur Kantari Jaialdian, baina aurten, Tanturumairu ikastolako Amaier Martinez, Laida Taberna, Beñat Etxepare, Katixa Madariaga, Beñat Zelaieta eta Ainitze Martinezek Imanol Urbietaren *Behin betiko* kantatu zuten martxoaren 14an Lakuntzako saioan.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Korrika arrakastatsua

Ehunka lagunek parte hartu zuten herrian Korrikaren 19. edizioan. Parte hartzeko tenore bikaina suertatu zen, larunbat arratsaldea, eta horri erantzunez, Bereauko zubitik hasi eta eta Igantziko mugaraino hainbat herritar ibili zen euskararen aldeko lasterketan. Batzuk bartz herrietako buelta osoa ere egin zuten. Argazkian, Zerbitzuen Elkarteak bere kilometroa egiten.

### APIRIL HASIERAN

## Musika eta zinea Harriondoan

### A.A.A.

Apirilaren 1ean, asteazken arratsaldeko 6:30ean Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Kultur Etxean. Apirilaren 12an, igandean 19:00eta *Loreak* pelikula eskainiko dute. Aipatu, bertzalde, Aste Santuan Turismo Bulegoa ere Harriondoan izanen dela.

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**BERA**  
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak  
**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

Lentzeria  
Bainujantziak  
Mertzeria  
Jantzi tipikoak  
Peñen blusak  
**kattagorria**  
lentzeria mertzeria  
Beheko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Biurrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127



## ARANTZA

GIZARTEA → REAU-KO KARTZELAN

# Mikel Karrera Sarobe presoaren bikotekidea eta 14 hilabeteko alaba atxilotuak egon dira

Umearen bizkar-zorroan sakelekoa atzentzeagatik

Nerea ALTZURI

Gertaera gogorak eta ekintza bihozgabeak. Horrelakoak maiz izaten dire kartzela barrenetan eta inguruetan. Joan den martxoaren 21ean, Paris inguruko Reau Sud Francilien kartzelan gertatu zena adibide gisa har dezakegu. Mikel Karrera Sarobe herriko preso ahan dago eta bere bikotekidea eta hamalau hilabeteko alaba bisita egitera joan ziren. Aldi honetan, 48 orduko iraupena zuen *bis a bis* a zuten. Milaka kilometro egin, horrelako bidaiaren gastu eta dakarren guziarekin. Bisitako momentua ailegatu eta kartzelan, ikustaldi-sarrerako kontrolean, haur tikiaren motxilan, bere sakelekoa atzendu zuelako, bikotekidea eta alaba tikiak atxilotu zituzten, Melungo polizia etxera eramanez. Haur tikiak, gainera, ez zuten berekin eduki... Arratsera arte ez zituzten libre utzi. Igan-

dean itzuli ziren ama-alabak etxera, bisitarik gabe.

Asteburu gogorra izan zen beraiantzat: ez zuten elkarrekin egoteko modurik izan, gainera bikotekidea eta alaba tikiak atxilotuak egon ziren eta atxilotuak egunean, urte pasatxoko alaba besoetatik eraman zieten jendarrekin.

Etixerat euskal preso senideak biltzen dituen elkarteak adierazi duenez, gertaera honek azken hilabeteetan Reauko kartzelan dauden euskal presoekin baldintzak nabarmen kaxkartzan ari direla agerian utzi du. Espainiako eta Frantziako kartzelatan izan ohi diren ohiko gertaera hauek gaitzetsi ditu Etxerategak.

Atxilotuak horren kontrako egiteko eta Reauko euskal preso politikoekiko elkartasunez bertako agintariengana zuzentzeko deia egin dute telefonoz solastuz edo gutun bat idatziz.

## PLENO BEREZIA

Udalak, bere aldetik, premiazko batzar berezia deitu zuen martxoaren 24an, atxilotuak eta gertaera hau salatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Korrikako lasterkariak

Joan den martxoaren 21ean ibilaldi jendetsua egin zuen Korrikak Bortzirialdean. Herritik pasatu ez bazen ere, Igantziako biribilgunetik aitzinera herriko kilometroetan dozenaka aranztar lasterka ibili ziren. Udala, Ekaitza Elkarteak, Herri Eskola eta Guraso Elkarteak (goiko argazkia eta ezkerrekoa), Gazte Asanblada eta Aterpeko (eskuinean) kilometroak jendez gainezka izan ziren. Haur, gazte eta heldu, denak beuren *ahala* erakusten. Guzien indarrak pilatuz eta ibilbide bereberean euskararen alde eginez ibili ziren Korrikan. Bizi-bizi joan omen ziren kilometroak... Martxoaren 27ko Korrika Ttikiko kronika eta irudiak hurrengo alean emanen dizkizuegu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Herriko pilotariak

Martxoaren 14an Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketako finalak jokatu ziren Lesakan eta tartean aritu ziren bi aranztar: Mikel Izagirre eta Suharri Madariaga. 18-9 irabazi zuen Mikelek, partida on bat eta gero.

## Txamukos Burladan

Han eta hemen dabilza mariatxi doinuekin. Apirilaren 3an Txamukos mariatxi taldea Burlada

jatetxean izanen da. Taldekideek bertan afalduko dute eta afaltiarrentzat girotzeko zerbaiteko dute. Ondotik, 23:00-

etan emanaldia eskainiko dute. Gogoratu, taldean bi herritar ditugula: Beñat Mitxelena eta Jon Koldo Arburua.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**sarobe**<sup>®</sup>  
gozotegia okindegia  
pº de eztegarra 25 bajo 1.948 63 08 99  
31780 bera (navarra) [www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
iturgintza · gasa  
kalefakzioa  
Tfnoa: 629449602 · BERA

GIZARTEA → BORTZ URTERAKO

## La Villa ostatu eta jatetxea errentan eman nahi du Udalak

Proposamenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira

prezioa 300 eurokoa da (gehi BEZa). Proposamenak astelehenetik ortziralera, 08:00etatik 14:00etara aurkez daitezke udal bulegoetan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun naturaleko epean.

Ostatua eta jatetxea uztaileko ireki beharko ditu hartzen dituenak. Kontratu sinatzen duenetik bortz urterako hartuko ditu, berte bortzerako luzagarriak.

### IGERILEKUKO OSTATUA ERE AUKERAN

Bertzaldetik eta uda hurbiltzen dela ohartuta, herriko igerilekuen tabernan ere norbaitek

### TTIPI-TTAPA

Herriko Ostatua den La Villa ostatua eta jatetxe zerbitzua errentan emateko prozedura ireki du Udalak. Lehiakideek esplotazioaren hilaletako kanona zehaztu beharko dute eskaintzan eta hasierako



UTZITAKO ARGAZKIA

### Baratzean lanean hasiak dira eskolan

Udaberria hasi denez, baratza martxan paratu dute eskolan: ongarria bota, aitzurtu, jorratu eta letxuga goxo-goxoak landatu dituzte. Hemendik guttira ikasleek beraien etxera eramanen dituzte entsalada ederrak prestatzeko! On egin!

lan egin nahi badu, en- balduko da. Baldintzak letxean interesatuen es- kantea aste honetan za- eta epeak Herriko Uda- kura izanen dira.

## 2015 / 2016 IKASTURTEA LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (Euskaraz) TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA  
MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA  
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



AURREINSKRIPZIOAK APIRILAREN 13tik 17ra

Telefona: 948 625 000



e-mail: [iesbera@educacion.navarra.es](mailto:iesbera@educacion.navarra.es)

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>



# SUNBILLA

GIZARTEA → APirilAREN 2TIK 5ERA

## III. Pintxo Astea antolatu dute Aste Santurako

Pintxorik onena bozkaten dutenen artean urdaiazpikoa eta bi botil ardo zozketatuko dituzte Bazko Astelehenean

**Maider PETRIRENA**

Aste Santuan Pintxo Astea eginen dute hirugarrenez herriko ostalduak apirilaren 2tik 5era. Fonda, Iturburu, Busitiz eta Ariztigainen eskainiko dituzte pintxoak. Pintxoak dastatu eta gustukoena bozkatzeko aukera izanen da.

Bozketan parte hartzen duten guztien artean urdaiazpikoa bat eta bi botil ardo zozketatuko dituzte apirilaren 6an, astelehen eguerdian Fondan.

Lehenbiziko bi urteetan izugarriko arrakasta izan du ekimen honek eta aurten ere parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.

### Mariatxiak eta haur jokoak kanpinean

Giro onarekin segitzeko, apirilaren 2an, Ariztigain kanpinean Txamukos mariatxiak ariko dira. Ortzegun Santu egunean, 19:30etik aitzinera hasiko du emanaldia gehienbat Lesaka eta Arantzako musikariek osatutako taldeak eta afal ondoren, 22:30etik aitzinera ere ariko dira.

Apirilaren 5ean, berriro, urtero bezala, haurrendako jokoak eginen dituzte kanpinean. Egitariaren barranean, ginkana, globoflexia, antzerkitxoa eta txokolatada izanen dituzte, bertzeak bertze.



### Ba al zenekien...

Laugarren urtez inauterietako argazki lehiaketa egin dela eta bigarren urtez segidan Amaia Apeztexea suertatu dela irabazle.



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

### Korrika ttikia herrian barna...

Martxoaren 18an korrika ttiki antolatu zuen eskolak. Herriko puntu ezberdinetan, maila bakoitzak lekukoa hartu zuen, bukaeran plazan argazki eder bat ateraz.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

### Kantu zaharrak Ariztigain kanpinean

Ariztigain kanpinean laugarren urtez segidan kantu zaharrak izan zituzten martxoaren 14an. 66 pertsonak bazkaltzeko tenoretik arratseko 11ak arte kantuan aritzeko aukera izan zuten giro ederrean. Guztira 70 kantu abestu eta dantzan ere aritu ziren. Tartean haurrak (Maialen Arretxea, Maialen eta June Ayesa) ere kantuan aritu ziren. Etorkizuna badenaren erakusle agian? Akitzeko Angel Mariezkurrenari egindako lana eskertzeko kantu eder bat kantatu zioten Aitor Ibarra eta Francisco Santxotenenak. Ondoren, Angel beraren txanda izan zen eta honek antolakuntza eta hurbildutako jendea eskertu zituen. Guztiak batera eskutik hartuta *Xalbadarren heriotza* eta *Agur Jaunak* kantatu zituzten. Zorionak antolatzaile eta musikariei, horrelako egun eder eta polit bat antolatzeagatik.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Herriko haur kantariak Elizondoko jaialdian

Haurrek ere bere txanda izan zuten Elizondoko Lur aretoan martxoaren 21ean. Herriko Tximistak (Ahielen Irazoki, Uxue Ibarra, Naroa Petrirena, Uxue Armandariz, June Ayesa, Unax Larraburu, Oihan Apeztegia eta Hodei Gastesi) eta Biurrik (Markel Agesta, Maialen Arretxea, Ane Etxalar, Egoi Irigoien, Jone Gorria, Helene Rekarte, Saray Bazterrika, Iradi Arretxea, Iker Urroz eta Enaitz Portu) taldeak aritu ziren. Soinuarekin Miren Hernandorena, tinbala eta tronpetarekin Aitor Ibarra eta gitarrarekin Igor Arruabarrena aritu ziren laguntzen. Horrez gain Mendaur trikitixa-pandero eskolakoek ere saioa eskaini zuten eta horien artean Eneritz Iturralde, Iraide eta Garaine Iriarte aritu ziren.



ARGAZKIAK: GORETI ANZIZAR

### ...eta Korrika haundia Belaten

Martxoaren 20an berriz, Korrika nagusian herriko udalak, Ulibeltzak Elkarteak eta herriko gazteek 200garren kilometroa hartua zuten Belaten. Korrika ikusi eta egitera joateko aukera izan zen nahiz eta eguraldia nahiko tristeza izan zen.



**ONURA FISKALAK** → Ttipi-Ttapa laguntzen duten herritar eta enpresek onura fiskal handiagoak dituzte orain

# 'Gizarte-intereseko' deklaratu dute Ttipi-Ttapa Fundazioa

Horri esker, adibidez 50 €ko donazioa ematen dionari 40 € itzuliko zaizkio hurrengo errenta-aitorpenean

## TTIPI-TTAPA

Administrazio publikoetatik kultur proiektuentzat bideratzen diren diru-laguntzak kasik desagertu diren honetan, Kultura Mezenasgoaren Foru Legea sartu berri da indarrean Nafarroan. Oraingoz, 92 proiektu eta artistek lortu dute *gizarte-intereseko* deklaratuak izatea, eta horien artean dago Ttipi-Ttapa Fundazioak bultzatzen duen aldiz-



Ziurtagirian ageri den modura, TTIPI-TTAPARI 2020a bitarte aplikatu ahal izanen zaizkio Kultura Mezenasgoaren Foru Legeak aurreikusten dituen pizgarri fiskalak.

kari eta interneteko edizioa.

Horiek horrela, aldizkaria hartzen duten harpidedunei aukera honen berri emateko komunikazio kanpaina egiten ari da TTIPI-TTAPA. Dagoe-

neko Urdazubi eta Baztango etxe aunitzara deitu da, eta datozen aste eta hilabeteotan Bertizarana, Malerreka, eta Leitzako harpidedunei deituko zaie gauzak zehatz-zehatz azaltzeko.

## ONURA FISKALAK

Partikularren kasuan, egindako donazioaren %80 itzuliko da errenta-aitorpenean (lehen 150 euroetan), eta %40 kopuru handiagoko donazioetan, heldu

## FLASH

### Dementzia duten pertsonentzat musikoterapia

Dementzia duten pertsonentzat musikoterapia saioa eskainiko da apirilaren 16an, ortzegunean, 19:00etan Mankomunitateko egoitzan. Apuntatzeko 948410299 edo 948275252 telefonora deitu. Saioa doan eskainiko dute. Antolatzaileak: Malerreka Osasun Etxea eta AFAN (Nafarroako Alzheimer Gaixoen Familietako Elkarte).

### Akordeolari Topaketa

Nafarroako Akordeolarien Topaketa apirilaren 19an egingen da Donezteben. Goizean kalejira eta Santamarian bazkaria izanen dute.

den urtetik aitzinera. Nafarroako enpresek ere badute onura sozietateen gaineko zergaren oinarrian: %30eko kenkaria lehen 300 euroetan eta %20 hortik gorako kopuruetan.

Sukaldako robotak nola funtzionatzen duen ikasi nahi duzue?

**BORTZIRIAKs**

**Apirilean ikastaroa Bortziriak-en**

Izena eman  
**948 630 377**  
telefono zenbakian

**25 urte**  
eskerririk asko gustoi!!!

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

**BILTEGIA 948 630 102**  
**FAUSTINO 647 810 152**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
**31780 BERA**

**TTIPI-TTAPA**  
**ALDIZKARIA**  
**SARE SOZIALETAN**

**facebook**

www.facebook.com/ttipi.ttapa  
www.facebook.com/ttipi.net

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**

# DONEZTEBE

GIZARTEA → MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEETARAKO

## Xanti Uterga izanen da EHBilduren zerrendaburu

Hauteskunde programa eta zerrenda aurkeztu zituen

### Marga ERDOZAIN

Xanti Uterga, Txibi, izanen da koalizoak aurkeztuko duen zerrenda-burua eta ondotik: Marga Erdozain, Nerea Ortueste, Peio Grazeña, Nerea Telletxea, Jon Etxekolonea, Pantxo Leitza, Luis Garde eta Maialen Belarra. Oier Zulaika, Aitziber Erasun eta Ramontxo Etxebeste ordezekoak izanen dira. Zerrenda osatzeko irizpideak honako hauek izan ditu EH Bilduk: parekotasuna, adin ezberdinetako kideak eta aurkeztutako programari begira zerrendakideen egokitasuna eta prestakuntza.

Zerrendaz gain, koalizio honek puntuz-puntu hauteskunde-programa aurkeztu zuen. Programa hau osatzeko lan taldeak hiru tresna erabili ditu: herriko talde eragileekin egindako 34 inkestak, herritarrek betetako 156 inkesta eta 8 herri topaketak. Tresna horiek ahalbideratu



UTZITAKO ARGAZKIA

EHBilduko zerrendako kideak, Xanti Uterga aitzinean dutela.

dute herri-programaren osaketa. Bertan, honako banaketa egin da: Doneztebe berdea (basogintza, hondakinak, argia, ura, elikadura surbirautza, hirigintza eta lurralde antolaketa); Doneztebe horia: helduak eta gazte politika; Doneztebe gorria (industria, turismo, osasuna, merkataritza, ogasuna eta ongizatea); Doneztebe morea (emakume eta berdintasuna) eta Doneztebe urdina (bestak, kirola, kultura, hezkuntza eta euskara).



### Ba al zenekien...

**Mendi abesbatzak, pasa den martxoaren 18an, Nafarroako Musikaren Hirian (Fernando Rematxa auditorioan), Donostiako Udaleko txistu taldea eta Iruñeako Pablo Sarasate kontserbatorio profesionaleko txistu ikasleekin batera, kontzertu ederra eskaini zuela. Hitz-ordu horretan abesbatzak ederki kantatu zuen. Azpimarratu behar da bakarlari moduan Salba Arriola, Beñardo San Miguel, Mañoli Apeztegia eta Alicia Telletxea abeslariak bikain aritu zirela.**

### NAFARROAKO TXAPELKETAN HIRU TALDE

Errekako duatloi taldea buru-belarri murgildu da denboraldian

#### TTIPI-TTAPA

Euskadiko duatloi zirkuitua lehiatzen ari da Iñigo Arregi du Erreka duatloi taldean eta emaitza hagitx onak lortu ditu: bigarren, bostgarren eta hirugarren postuak eskuratu baititu Mungia, Eibar eta Oñatiko duatloietan. Horren ondorioz, gaur gaurkoz *Circuito Vasco-Navarro* txapelketako liderra da.

Apirilaren 11n Nafarroako duatloi txapelketa ospatuko da Eguesen, eta Errekak hiru taldez osatutako ordezkariak eramanen du. Maiatza arte, duatloiak izanen dira taldearen jomuga nagusiki, nahiz eta taldekide batzuk, mendi lasterketetan ere parte hartuko duten. Maiatzean hasiko diren triatloietan ere parte hartzeko asmoa dute: Euskadiko triatloietan baita Alpe d'Huezeko triatloi famatuan ere. Bukatzeko, aipatu behar da aurten, aurre-benjaminetan fitxa bat atera dutela eta lehiatzen ari dela (taldeak jarraipena izanen duenaren seinale).



### FLASH

#### Errekako zuzendaritza batzordean aldaketa

Xanti Utergak, orain arte Errekako lehendakari ordea, bere kargua utzi du hurrengo udal hauteskundeetan alkategai aurkeztuko delako. Berak utzitako kargua Dabid Mindegia (orain arte eskubalo sekzioko ardura-dunak) hartuko du. Hemendik aitzinera Errekak honako zuzendaritza izanen du: Joseba Legarra (lehendakaria), David Mindegia (lehendakari ordea), Koldo Legarra (diruzaina) eta Pascual Bertiz (idazkaria). Gainerako bokalek eta komisioren partaideek berdin segituko dute.

#### Bortz talde laxoa txapelketan

Martxoaren 28an hasitako laxoa txapelketan hamaka taldetatik herriko 5 talde lehiatuko dira: The Moment, Avia, Suma, Apeztegia Burdindegia eta Gubaigu. Talde horietan osotara 20 pilotari ariko dira. Zorte on!

#### Kinto bestak

Malerrekako kinto bestak martxan dira. Heldu den apirilaren 18ra 6 kinto baino gehiagok hitzordua ezarri dute. Urtero bezala interesatuek Titi ostatuan izena eman behar dute. Nahiz eta kinto besta gehienak egun horretan ospatu, beste batzuek apirilaren 25erako egin dute hitzordua (aurten 40 urte beteko dituztenak besta berezia antolatzeko asmoa omen dute). Beraz, bi asteburu ezin ederragoak Malerrekako kintoentzat!

GIZARTEA → MALERREKAKO LEIHOTIK BEGIRA, ZUK ZEU NOLA IKUSTEN DUZU?

## Argazki eta kontakizun lehiaketa antolatu dute

Apirilaren 24an izanen da lanak aurkezteko azken eguna

### Marga ERDOZAIN

Haur eta gaztetxoek Malerrekand dauden ikastetxeen bidez parte hartu ahalko dute lehiaketa honetan: Malerrekako leihotik begira. Zuk zeuk nola ikusten duzu? izanen da gaia. Aurkeztuko diren lan guztiek irudi bat (argazkia, marrazkia) eta testu bat izan behar dute halaberrez (gutxienez 8 lerro eta gehienez 12, letraren tamainakoa 12koa izanda). Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira; DOC (word), PDF, edo antzeko programetan. Lau ka-

tegoriatan banatuko dituzte lanak: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak, L. H.ko 3. eta 4. mailak, L.H.ko 5. eta 6. mailak eta D.B.H.ko 1. eta 2. mailak. Epaimahaia Euskara Zerbitzuak proposatutakoa izanen da eta lanen zuzentasuna, originaltasuna, sormena eta aurkezpena baloratuko dituzte: zergatik aukeratu duzu txoko, paraje, egoera, ospakizun... hori?, zer sentitzen duzu bertan?,

non dago? noiz egiten da?... galderei erantzuten ote dieten ere baloratuko baita.

Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 24a izanen da eta sariak aurtengo Malerrekako Egunean banatuko dira, hau da Elgorriagan maiatzaren 30ean eginen den bestan. Gogoratu behar da lehiaketa hau iaz ere antolatu zela eta 140 lan baino gehiago jaso zirela.



### Ba al zenekien...

**Malerrekako Gure Esku Dago ekimenaren batzordea apirilaren 25erako Ehuntze Eguna harilkatzen ari dela besta polita antolatuz. Otsailan Jostunak dokumentala Zubietan, Aurtitzen, Donamarian eta Donezteben ikusteko aukera izan zen, martxoan mendi martxak antolatu ziren eta apirilaren 25erako Ehuntze eguna prestatzen ari da.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### Korrika txikia erraldoia bilakatu zen

19. korrika martxoaren 20an Baztandik pasa zen eta bertan korritu ziren Malerrekand erosi ziren kilometroak: 197. eta 199. kilometroak korritzera San Migel eskola, Mendaur institutua, Erreka eta Mendaur guraso elkarteak eta Doneztebe Futbol taldeko ordezkariak bertaratu ziren. Kilometro hauetaz gain, sunbildarrek (200.) Ituren eta Zubietako udalek (201.); Mankomunitateak (202.), Donamariakoek (203.); eskola txikiek (204.) eta legasarre (205. eta 206.) lekukoa elkarri pasatuz korritu zituzten. Malda handia bazen ere, euskararen aldeko ikurra hartu zutenek kilometro horiek leun-leunak egin zituzten. Egun berean, arratsaldeko 2:30 aldera, San Migel eskolak korrika txikia antolatu zuen. Doneztebeko karraketan ikasleak mailaren arabera banatu ziren. Nagusienek, 6. mailakoek, hasiera eman zioten korrika txikiari, poliki-poliki, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa gainerako ikasleak batuz osatu zuten ibilbidea. Bukaeran, eskola guztietako ikasleek, irakasleek baita gurasoek ere, korrika babestuz, lasterketa polita osatu zuten. Bukatzeko, 6. mailako bi ikasleek mezu polita irakurri zuten eta 5. mailako bertso eskolakoek bertso ederra kantatu zuten.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**2015 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA**

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

## ITUREN

GIZARTEA → MARTXOAREN 21EAN

# Mendaurrera iritsi da Gure Esku Dago ekimena

Ituren, Aurtitz, Zubieta, Elgorriaga eta Sunbillatik igo ziren

### Arkaitz MINDEGIA

Ituren, Zubieta, Elgorriaga eta Sunbillako Gure Esku Dago ekimeneko kideek mendi ateraldi bat antolatuta zuten Mendaurrera martxoaren 21ean. Gehienek, Aurtizko tailerretik hasi zuten ateraldia, Sunbillakoekin Bustitzeko zelaian elkartu ondotik, Mendaur kaxkora igo eta bertan atera zuten argazkia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Esku Dago ekimeneko kideak Mendaurren

### Malerreka kantuz

Apirilaren 4an Ituren ospatuko da Malerreka kantuz. Eguerdialdera herrian barna kalejiran ibiliko dira.

### Lanbide azoka

Apirileko artisau eta lanbide azoka apirilaren 12an egingen da plazan, hilero bezala, gisa guzietako postuekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Korrika ttikia Pulunpakoek eskutik

Ez zen herritik pasatu baina herritarrek parte hartu zuten aurten ere Korrikan. Pulunpa eskolakoek Korrika Ttikia egin zuten martxoaren 17an eta handixeagoak Belaten barna ibili ziren martxoaren 20an.

### Mexikar gaua

Mexikar gaua ospatu zuten martxoaren 14an Herriko Ostatuan, afaldu eta Puro Relajo taldearekin gozatu.

### Haur kantariak

Elizondon martxoaren 21ean egin zen saioan Mendaur trikitixapandero eskolako lau talde aurkeztu zituen.

## ZUBIETA

GIZARTEA → BI ASTEBURUTAN ZABALIK EGONEN DA LUDOTEKA

# Aste Santurako ekitaldi bereziak Gaztegunean

Pelikulak, sukaldaritza ikastaroa eta birziklapen tailerra

### Fermin ETXEKOLONEA

Txitxilo Gaztegunean, Aste Santuko oporraldiaren aitzakian ekitaldi bereziak antolatuta dituzte gurasoek.

Apirilaren 5ean, igan-

dearekin, pelikula emanen dute arratsaldeko 5etan ludotekan.

Apirilaren 7an, asteartearekin, sukaldaritza tailerra estalpean 5etan. Erroskillak egiten ikasiko omen dute eta gurasoek txokolata jarriko dute. Ikastaro honetan parte hartzeko izena eman behar da, jakiteko zenbat material behar den. Elkartekoekin izanen dute eta kide ez direnek euro bat or-

daindu beharko dute.

Apirilaren 9an, ostegunarekin, Birziklapen tailerra egingen dute ludotekan, gurasoen laguntzarekin. Egun horretarako potoak eta birziklatzeko bertze materialak biltzea eskatzen dute.

Apirilaren 3, 4 eta 5ean, 10, 11 eta 12an irekia egonen da ludoteka zaintzailearekin, betiko ordutegian, 17:00etatik 19:00etara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Belate aldean hartu zuten herritarrek Korrikako kilometroa. Haurrek ere parte hartu zuten.

### Egur loteak

Egur loteak markatzeko asmoa du Udalak eta etxean entregatuko du egurra. Iaz kamioi osoa hartu zuenak aurten ez du horretarako eskubiderik izanen.

Berriz ere, kamioi erdia edo osoa eskatzen ahal da, iazko baldintzetan eta pisuaren arabera kobratuko da. Udaletxean eman beharko du izena apirilaren 7ra arte, 9:00etatik 11etara.

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK ONARTU DU

## Soinketa besta Donezteben eginen dute apirilaren 9an

Apirilaren 23tik 30era Kataluniara joanen dira erretiratuak

**Jose Luis LEGARRA**

Apirilaren 9an soinketa eguna izanen da Donezteben, 16an Lacturaleko instalazioak bisitatuko dira, eta 23tik 30era Kataluniako bi-daia.

Katalunian Freixenet upeltegiak, Bartzelona hiria, Santa Maria de Ripolleko monastegia, Roses, Castellfollit de la Roca, Besalú, Banyoles, Cap de Creus, Cadaques, Joncols kala, Figueres, Ampuria Brava, Montserrateko La Moreneta amabirjina eta bertze zenbait leku eder eta interesgarri ikusiko dituzte eta Frantzia aldera ere kuku eginen dute, Carcassonen cassoulet ohiko bazkaria

hartzeko edo Rosellongo hiriburua den Perpignaneko El Castillet monumentu ezaguna ikusteko, bertzeak bertze.

### Presidente eta zuzendaritza batzorderako hauteskundeak

Arkupeakeko 11. boletinean argitaratu zen bezala 2015eko ekainaren 30ean betetzen ditu 4 urte gaur egungo zuzendaritza batzordeak. Estatutuek adierazten dutenaren arabera presidente eta zuzendaritza batzordeko kide izateko hauteskundeak buruzko deialdia egin behar da. Intere-satuak daudenek beraien kandidatura aurkeztu behar dute elkarteko bulegoan (Santa Luzia kalea, 5-2. solairua, Doneztebe) 2015eko maiatzaren 30a baino lehen.



UTZITAKO ARGAZKIA

250 bazkide bildu ziren martxoaren 19an Ola sagardotegian.



UTZITAKO ARGAZKIA

104 bazkide izan ziren martxoaren 10ean Xabierren.

### Beran, Leitzan eta Zugarramurdin delegatu berriak behar dira

Beran M<sup>a</sup> Jesús Iri-goienen ordezkio dele-

gatua, Leitzan Pello Telletxearena eta Zugarramurdin M<sup>a</sup> Angeles Gamboarena behar ditu Arkupeak elkartek. Anima zaitzete bada hutsune hauek betetze-

ko. Haiek lana txukun eta xuxen egin dute, eta aipamen berezi bat merezi du M<sup>a</sup> Angeles Gamboak, ustekabean utzi baikaitu (Goian bego).

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla · Tel: 948 450 862

**APC**  
ILUMINACION  
...zure LED denda

- LED bonbilla eta lanparetan aukera izugarria
- Kontsumoan %80 arte aurreztu
- Gustura geldituko zara, etorri eta ikusi
- Partikularrei zein profesionaleri zuzendutako salmenta, prezio hoberekin

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

# SALDIAS



GERTAERAK → OTSAILEKO EURIEN ONDORIOAK

## Tantadako pista hondatu da eta loteak ezin ekarri

Otsaileko eurien hondamena erretratuetan

**Markel LIZASOAIN**

Tandako pistan zulo polita agertu da. Lur erauzia baino gehiago ematen du lurrikaria izan delatarte horretan; honda-honda egina dago, lurra beheiti joana, eta toki askotan ikusten da lehertua bezala, baita zuloen gaineko ezpondan ere. Noiztik ote zegoen azpi hori hutsa? Hamaika tratore pasatuak dira orain artino. Orain, komeriak egurra etxera ekartzeko lotea

han duenarentzat. Aka-so, goitik sartuta eta nonbaiten buelta emanda, baina han inon ere ez da zabaldirik. Orduan, edo bertan utzi beharko du bolada batean edo, beharbada, karreteratik hurbil dauden haiek, goitik, troilarekin tiraka.

Leitzako bidean ere, Joaneko borda pare horretan, lur erauzia izandu da, otsail erditsuan. Makinekin lurra kentzen arituak dira, eta doi-doia libratu dute bide bat; geroztik, erretratuan ageri den bezala dago. Mendia berriz ere bide gainera erortzeko arriskua delakoz utzi ote dute?



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

Bazter askotan bezala, bideak hondatu eta lur erauziak izandu dira Saldiasen ere.



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

### Eskolaren aurreko mural handia

Museoetara joan beharrik ez dago artelanak ikusteko. Hor dago, Saldiasko eskolaren aurrean, erretratuan ageri den handi-eder hori. Eskolako haurrak aritu dira fuerte, guraso batzuek lagunduta. Ez dira oraintxe hasiak, eta ikasturte hasierarako itxuratua zuten. Lan handia egin dute, eta maiz gertatzen dena, baten batek besteek baino oraindik eta lan handiagoa hartu duela aditu dugu; Azpiko Etxeko Santusez ari gara. Bizigarria ematen dio herriari, kolore biziak baititu eta oso ikusgarria da. Nahi luke batek baino gehiagok horrelako margolana etxe aurrean edo etxe parean. Nere partetik, ea animatzen diren horrelako gehiago egitera herriko beste zokoren batean, pareta faltarik ez dago!

**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

**APARAN**

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**ORBELA**  
SENDERONDA  
**BEINTZAKO OSTATUA**

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
[www.orbela-beintza.com](http://www.orbela-beintza.com)

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINAITUAK OSTATUA  
PINTXOK  
BOKATAK  
TFNOA: 948 630 259 BERA

## KULTURA

## EZKURRA

### BERTSOLARITZA

XXVIII. Baztan-Bidasoaldeko bertso paper lehiaketarako lanak aurkez daitezke

### TTIPI-TTAPA

Berako kultur Batzordeak eta Bortziritetako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 28. Bertso paper lehiaketa antolatu dute. Lanak Berako kultur etxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 15a baino lehen, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz. Parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: **A maila:** 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi kopla osatu beharko dituzte. Saria: garaikurra eta 50 euro (lehenengoak) eta 30 euro (bigarrenak). **B maila:** (11-14 urte) Bi bertso edo lau kopla egin behar dituzte. Saria: garaikurra eta 100 euro irabazleak eta 70 euro bigarrenak. **C maila:** (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte. Saria: garaikurra eta 150 euro lehenengoak eta 120 euro bigarrenak. **D maila:** 18 urtetik goti. Gutxienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: garaikurra eta 200 euro garaileak eta 150 euro bigarrenak. Bortziritetako bertso eskolako kideek aukeratu dute epaimahaia. Maiatzaren 29an, ortziralarekin izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan eginen den ekitaldian.

HISTORIA → AGIRI ZAHARREI BEGIRA

# Juan Madoz, beste idazkari errebelde baten gorabeherak

Gutxi irauin zuen udaletxean, bereak ez ziren eskumenak hartu zituelako

Fernando ETXEBERRIA

1927an herriko idazkaria dimisioa aurkezteko bultzatu zuten, ia inork ez zuelako ulertzen, itzultzaile baten laguntza ere behar izan zen hainbatetan herritarrek berarekin komunikatzea lortzeko. Honek dimittitu eta urte betera aurkeztu zen Juan Madoz posturako. Idazkaria izateko beharrezko bi baldintzak betetzen zioten: euskaraz jakitea eta organista izatea. 3.000 pezetako soldata eta logela dohainik eskuratu zituen ordainetan. 1928an sortu ziren udalaren eta idazkariaren arteko lehenengo tirabirak. Juan Madozi autoritatearen aurkako erasoak, desobediencia eta errespetu falta egotzita eta artxiboa behar bezala ez zaintzeagatik espedientea ireki zioten.

Zinegotzietan ez zizkiren bileren paperak ematen, alkatearen zigilua ez zuen bueltatu nahi eta alkateak emateko eskatu zionean idazkariak ezezkoa eman eta modu txarrean bidali zuen bere bulegotik. Aurrekoa txikitu eta barrekin aterako zizkiola esanez ere mehatxatu zuten. Bileren aktak idazteko koadernoak ere ez zion emango esan zion. Alkateak guardia zibila-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Berrito ere luiziak

Etengabeko euriteen eta azken elurteen ondorioz, luizi gehiago egon dira inguruko lursailetan, zehazki, Baztanea Borda eta Ibia artean. Errepidean ere kalteak izan dira Atoiz inguruan eta baita beheitxeago ere. Oraindik ez dira konponketak egiten hasi, Nafarroako Gobernua konponketa lanetaz arduratuko denaren esperantza dagoelako. Hortaz, diru-laguntzak izango direla baieztatzen denean hasiko lirarteke hondakinak kentzen.

ri deitu behar izan zion eta bi lekukok gertakari berri eman zieten. Ordezko bila hasteko expedientea ireki zuten berehala.

Egun hartakoa ez zen gertakari isolatua izan, galantak izan ziren egin zituenak. Ez zen lanera joan hainbat egunez (horretarako baimenik eskatu gabe), alkateari egunero udaletxera joateko aginduz ofizio bat bidali zion, emakumeekin gehiegikeriak egin zituen bere bulegoan, udaletxeko eta epaitegiko giltzak hirugarren pertsonen esku uztea, ganaduaren erregistro ofiziala ez kontrolatzea (horregatik udaletxeak gobernadoreak jarritako multa bat ordaindu behar izan zuen)... Au-

toritatearen kontrako errespetu faltak etengabeak izan omen ziren.

Expediente horren aurrean idazkariak helegiteak aurkeztu zituen. Udalak gobernadorearengana jo zuen gertatutakoa azalduz eta honek ordezkaritza bat bi-

dali zuen bi alderdiek akordio bat lortu zezaten. Ez zen halakorik gertatu, idazkaria ez zegoelako dimisioa aurkezteko prest. Azkenean, udaletxeak Fermin Estanga Eratsungo idazkariari eman zion Ezkurra idazkari postua.

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

**Dolarea**  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

# GOIZUETA

IKASTAROAK → APIRILEAN

## Xake ikastaroa antolatu du Umore Ona elkarteak

Apirilaren 18an Ameztoi txakolindegira irteera ere antolatu du

### TTIPI-TTAPA

Umore ona elkarteak apirilean zehar xake ikastaroa antolatu du haur nahiz helduentzat. Apirilaren 11n hasiko da eta lau larunbateko iraupena izango du. Oraindik apuntatzeko aukera dago, Amaia kafetegian edo *goizuetakoumoreona@gmail.com* helbidera idatzita. Helduak 5 euro ordaindu behar dute, eta langabetu eta haurrek doan izango dute ikastaroa.


Bestalde, apirilaren 18an, Ameztoi txakolindegira irteera antolatu du Umore Onak. Goizeko 10etan izango da irteera plazatik eta animatzen denak hasteko 30 euro ordaindu behar ditu Amaia kafetegian izena emanez. Kopuru mugatuko irteera da eta animatzen denak apirilaren 11 izango du apuntatzeko azken eguna.

### Bioenergetika eta Chikun ikastaroa

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, berriz, Bioenergetika eta Chikun tailerra antolatu du apirilaren 11n, larunbatean 10:00etik 13:00etara. Udaletxeko Ganbaran eskainiko zaie 16 urtetik gorako emakume zein gizonezkoei. Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara (948 510840) deitu behar da, 08:00etatik 15:00etara, apirilaren 10a bitarte. Teresa Martinez, Maite Peurrena eta Mintxo Asiain izanen dira ikastaroren emaileak eta nahieran mugitzeko arropa eroso eta manta eramane beharko dituzte partehartzaileek.

### Torturaren kontrako mozioa

Torturaren aurkako eta giza eskubide guzti-en aldeko mozioa onartu zuen ahobatez udalak martxoaren 3ko batzarrean. «Komisarietan tratatu txarrak ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen legedia



UTZITAKO ARGAZKIA

### Erronkariko Triatloi Zurian Umore Onako emakumeak garaile

Martxoaren 22an jokatu zen Erronkariko V. Neguko Triatloia eta erreleboka egindako lasterketan, Umore Onaren izenean atera zen taldeak irabazi zuen emakumeen kategorian. Jaione Jimenez herritarrak egin zuen bizikletako zatia, Isaba eta Belagua arteko 22 kilometro gogorak, elur eta lainopean. Aurretik, Leire Portu lesakarrak 8 kilometro egin zituen lasterka eta ondotik, Otsagiko Amaia Saldiasak 10 kilometro eskiekin. Trofeo dotorea eta berezia, pilota eta beste kirol *ohikoagoetako* sariekien bete dagoen elkarteko bitrina oparotetan dago.

ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Ez zen txapelik etorri Zizurko lau terdiko txapelketatik

Martxoaren 14an jokatu ziren Zizur Nagusiko lau eta erdiko txapelketako finaletan bi herritar izan ziren, baina biek galdu egin zuten: 2000. urtean jaiotako kadeteen finalean, Antton Apezetxeak (Umore Ona), 12 - Zubeldiak (Zazpiturri), 18 eta 199an jaiotako kadetetan, Iker Salaberriak (Erreka), 7-Arangurenak (Usurbil), 18.



behin betiko indargabetzea» eskatu du Udalak, «Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz». Horretaz gain, funtsez-

koa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea ere eskatu du mozio honen bitartez eta Auzitegi Nazionala-

ri eskatzen dio «tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judicial guztiak berrikusi eta bertan behera utz dituzala».



**oninart**  
jantzi boutiquea

Plaza zaharra, 5 · 31770 LESAKA  
T. 948 637167  
oninart@oninart.com · www.oninart.com







GIZARTEA → KORRIKA KULTURALA ETA KORRIKA

## Herritarrek gogoz egin dute bat euskararen aldeko ekimenekin

Udalaren etxebizitza bat errentan hartzeko aukera

### Juana Mari SAIZAR

Korrika kulturalaren barnean Hodei magoa etorri zen herrira bere saioa eskaintzera eta jendearen erantzuna oso ona izan zen, udaletxeko gela txiki geratu zen eta arratsalde ederra pasatu zuten herritarrek magiarekin gozatuz.

Bestalde pasa den astean igaro zen korrika gure zonaldetik eta aresoarrek ere gure zatia egin genuen. Ostiral arratsaldean herrian korrika txikia egin zen eta

bertan atera ziren herriko guraso, irakasle eta haurrak. Herrian giroa jartzeaz gain gauerako entrenatu zuten hauek! Gauean berriz eguraldia eskasa izan zen, baina hori ez zen aitzakia izan aresoarrek etxean geratzeko. Jende asko elkartu zen goizeko 4:15ean plaza zaharrean eta hortik bakoitza bere postuan jarri eta korrika ari ziren euskararen alde. Ondoren txokolata da ere izan zen Pake Toki elkartearen eta hurrengo egunean batek baino gehiagok agujeta ederrak ere bai.

### Ba al zenekien...

**Panpanoziriren 3. alea osatzeko lan taldea aste honetan hasi dela biltzen. Ongi legez urte bukaerarako prest izatea espero dute.**



ARGAZKIAK: JAIONE OLAZABAL ETA UXUE GOIKOETXEA

Korrika ttikian motorrak berotu eta Korrika goizaldeko ordu ttiketian eta euripean izanagatik, herritar ugari egin zuen bat Korrikarekin.

### Etxebizitza errentan

Udalak udaletxeko eraikinean duen etxebizitza errentan eman nahi du. Jarri duten baldintzetako bat da etxebizitzak beharrezko dituen berritze lanen kostuak bere gain hartu beharko lituzkeela etxebizitza errentan hartzen duenak (alokairu gastutik deskontatuko litzateke). Informazio gehiagorako udaletxean eskuratu liteke.



ARGAZKIA: EUSKARA TALDEA

### Apirilaren 25ean Iruñeko Anaitasunara joateko deia

Aresoko Euskara Taldeak *Euskaraz bizi nahi dut* ekimenarekin bat egin bideoa osatu du herritarrei apirilaren 25ean Anaitasun egitekoa den ekitaldira joateko gonbitea luzatuz. Eta ez hori bakarrik, erronka ere luzatu die Aresoko Guraso Elkartekoei, ea mezua zabalduz bideoa osatzen duten!

**ola SAGARDOTEGIA**

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAI AIREKIA**

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

**ANTZUZELAI S.L.**

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

## LEITZA

KORRIKA → GIRO BIKAINEAN

# Euriak ez zuen apaldu euskararen alde egindako oihua

Ibilbideko 10 kilometro egin ziren herrian

JM BARRIOLA

Martxoaren 21ean goizeko bostak aldera igaro zen Korrika guretik. Euskararen aldeko 10 kilometro izan ziren herrian egindakoak. Sarrrioko langileak izan ziren lekukoa hartzen lehenak. Ondoren Gazte Asanbladako ordezkariak, Aurrerakoek, Alkekoeak, Kornietak eta Guratzmendi Elkartekoek elkarri eman zieten lekukoa. Gero EHBilduko ordezkariak, Euskara

Mankomunitatekoek, ikastetxetakoek eta Guraso Elkartek. Herri sarreran udalaren izenean alkateak eraman zuten eta azken 3 kilometroak aresoarrek egin zituzten berastegiarekin lekukoa pasatuz. Torrean afaldu zuten 40 lagunek

korrikarako girotzen joateko eta gainera herri-ugari esnatu zen euskararen aldeko lasterketan parte hartzeko.

Martxoaren 18an Erleta eskolako Guraso Elkartek, irakasleek eta ikasleek korrika txikia egin zuten herrian.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Plazaolako geltoki aurrean soinketa ariketak egiteko tresnak jarri ditu udalak

Udalak, Plazaolako geltoki aurrean dagoen parkean soinketa ariketak egiteko tresnak jarri ditu. Guztira bost tresna jarri dira eta adin guztietako herritar eta bisitariak erabili ditzaketen arren, gehienbat adinekoei zuzenduta daude. Ekimen hau, lehenengo urtean udalak antolatu zuten parte-hartze prozesuan egindako eskari baten erantzuna izan da.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI


Goizaldeko ordu ttiketian baina giro bikainean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Herri krosean emakumeen parte-hartzea bultzatu nahi da

Irudian ikusten den bezala, pasa den urteko herri krosean izan ziren emakumeak, baina datuek diote gizonezkoen kopurua handiagoa izan zela. Aurtengo krosari begira ordea, argazkia aldatu nahiko luke Leitzaoko eta zonaldeko Berrintasun Batzordeak eta horregatik apirilaren 25ean burutuko den kros herrikoian emakumeei parte hartzeko deia luzatu die. Emakumeek kirola egiteko, kalea hartzeko eta protagonista izateko duten eskubidea azpimarratu nahi dute eta emakumeen presentzia kirolean naturaltasunez bultzatu. Kroserako prestatzen hasteko entrenamendu kolektiboak antolatuko dira, asteartero eta ostegunero, iluntzeko 8etan poligonoaren hasieran egin dute hitzordua.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Urrezko Ezteiak

1965eko otsailaren 4an ezkondu ziren José Arrizurieta Azpiroz eta Maria Teresa Bildarraz Azkonegi. Egunotan gustura ospatu dituzte Urrezko Ezteiak.

**GIZARTEA** → UZTAILAREN 19AN OSPATUKO DA ELIZONDON

# Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea irekia



Apirilaren 17ra  
bitarte

**TTIPI-TTAPA**

*Baztandarren Biltzerra. Baztanen eskuara barra-barra. Elizondon, 2015eko uztailaren 19an.* Testu hori eraman beharko duen kartel lehiaketa abiatu du aurten ere Baztandarren Biltzerra Elkarrekin. Apirilaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak. Gisa hauetakolehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz, egun horretan Baztandarren Biltzerra Elkarrekin esku egon beharko dute.

50 x 70 zentimetro izan beharko duten kartelak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxera igorri beharko dira (Jaime Urrutia kalea, 1 solairua; 31700 Elizondo). Lehiaketa irekia eta zabalaz denez, partehartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Sariduna, berriz, apirilaren 17tik aitzinerat emanen da ezagutzera. Kartel bakarra aukeratu du epaimahaiak eta honek 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzerra egunean, uztailaren 19an, hain zuzen. Dena den, epaimahaiak kartelak ez aukeratzeko ere erabaki dezake.

Bertzalde, aipatu, uztailaren 20tik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituztela.



## Elizondo BHI

Diputazio etorbidea z/g · 31700 · ELIZONDO  
T. 948 581 805 · F. 948 581 840  
ieselizo@educacion.navarra.es  
<http://ieselizondobhi.educacion.navarra.es>

Lanbide Heziketa zikloak: erdi eta goi mailakoak  
Administrazioa eta Ekoizpen Mekanikoa  
Oinarriko Lanbide Heziketa:  
Administrazio zerbitzuak eta Fabrikazioa eta Muntaketa  
Heziketa berezia: LHKP egokituak  
Goi mailarako sarrera frogarako prestakuntza ikastaroa

**Asier OTXANDORENA** → Elizondo LH BHIko ikasle ohia  
**laz, EMHZ Mekanizazio**ko zikloa bukatu zuen. Berako Mecanizados Ubela enpresan lan egiten du.



*Lanean zenbait urte aritu ondoren, krisiaren eraginez ikasketen jarraitu behar zuela iruditu zitzaion. Joan den urtean, Elizondo LH BHIin EMHZ Mekanizazio zikloa bukatu zuen eta denbora gutxira, lana aurkitu zuen.*

**Zergatik aukeratu zenuen Erdi Mailako Heziketa Zikloa Mekanizazioan egitea ELIZONDO LH BHIin?**  
Zerk bultzatu zintuen berriz ikastera?  
Mekanizazioa egitera Elizondoko ikastetxera joan nintzen etxe ondoan dagoelako eta inguruko enpresetan ikasketak horiek dituen jendea behar delako. Lanik ez nuen eta edozein lanetan hasteko ikasketak behar direlako hasi nintzen berriz ikasten.

**Institutuan egon zinen bitartean zer moduko esperientzia izan zenuen?**  
Hasieran eskolara itzultzea zaila izan zen, ikasteko ohitura galdua bainuen. Baina orokorrean arront gustora egon naiz.

**Ikasketak bukatzeko, enpresetan lantokiko prestakuntza (praktikak) egiten aritu zinen. Praktiketan zer moduz aritu zinen? Eta ondotik?**  
Hagitz gustora, gainera praktiketaren aunitz ikasi nuen. Horren ondotik eskolako lan poltsan izena emana nuen eta haren bitartez lan egiteko deitu zidaten.

**Zure esperientzia ikusita, lan mundua dagoen bezala egonda, DBH bukatzen ari direnei eta beraien etorkizunaz arduratuak daudenei, ELIZONDO LH BHIra Mekanizazioa ikastera etortzea gomendatuko zenieke?**  
Bai, dudarik egin gabe. Eskolan oso giro ona dago ikaslearen artean eta baita ikasle eta irakaslearen artean ere. Hortaz gain, ikasketak horiek inguru honetan lan irtenbidea badute.

**Amaia MORTALENA** → Elizondo LH BHIko ikasle ohia  
**Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako tituluduna.** Gaur egun, Grami Hertz Klinikan administraria da.



**Zergatik aukeratu zenuen Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Heziketa Zikloa ELIZONDO LH BHIin egitea?**  
Administrazio zikloa Elizondon egin nuen, bertan jarraitzea erabaki nuen, eskatzen zuten maila altua zen eta bide horretatik jarraitzea egokiena iruditu zitzaidan. Institutua etxetik hurbil egotea eskertzekoa da.

**Institutuan egon zinen bitartean, zer moduko esperientzia izan zenuen?**  
Esperientzia oso ona. Berriz atzera egingo banu, institutu honetara joango nintzen dudarik gabe. Ez da perfektua, baino ze institutu perfektua da? Nere egonaldia bertan ona izan zen, bai gelakideekin, baita irakasleekin ere.

**Ikasketak bukatzeko, enpresetan lantokiko prestakuntza (praktikak) egiten aritu zinen. Praktiketan zer moduz aritu zinen? Eta ondotik?**  
Praktikak egitea zorte bat da eta ondotik lana izatea loteria tokatzea bezalakoa. Niri hori gertatu zitzaidan: praktikak Zergalan Ahoulkaritzan egin nituen eta nire lankideen laguntzarekin asko ikasi nuen. Hori eskertzekoa da. Zorionez praktikak bukatzerakoan, lanean jarraitzeko aukera eman zidaten eta momentu hori ezin hobea izan zen. Aukera hori eskaintzeagatik eskerrak eman nahi diet bihotzez.

**Zure esperientzia ikusita, bere ibilbidea planteatzen ari diren ikasleei, ELIZONDO LH BHIra Administrazioa ikastera etortzea gomendatuko zenieke?**  
Oso zaila da bakoitzak zer izan nahi duen jakitea, askotan ez baitugu ideiak sobera argi eta beste batzuetan jarraitu dugun bidea ez dela benetan gustukoena konturatzen garelako. Ideiak argi ez dutenei, probatzea aholkatzen diet, lanbide hau oso baliagarria bait da edozein lekuan lan egiteko eta gauza asko erakusten dizu eguneroko bizitzarako. Hasiera batean estetizista izan nahi nuen, baina orain administraria naiz.

# BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

## Uholdeen harira nafarren arteko ezberdintasunak egiten dituela uste du Udalak

Baztango kasuan, iazko larrialdietako lanetatik %70 ordaindu duten bitartean, orai lan guzien %100 ordainduko du

### TTIPI-TTAPA

2015. urte hasieran Nafarroan gertatutako uholdeen inguruan bere elkartasuna adierazi die Udal Gobernu taldeak kaltetuak izan diren herri eta herritar guztiei. «Badakigu lehenengo eskutik zein gogorrak izan daitezkeen momentu eta egoera horiek» aipatu dute martxoaren 24an egindako agerraldian. Nafarroako herritar guztiei baina bereziki baztan-darrei jakinarazi nahi izan die 2014ko uztaileko uholdeak gertatu ondoren zein den Baztanek duen egoera eta baita 2015ko uholdeen izan den trataera

desberdina ere. «Datuokin adierazi nahi dugu zein nabarmena den UPNren gobernuak nafarren artean egiten dituen desberdintasunak» azpimarratu zuten.

2014ko uholdeak gertatu ondoren hainbat bisita izan zituzten bai Nafarroako Gobernutik zein Estatuko Gobernutik, «promesa ugari izan ziren baina aipatutako laguntzak ez ziren iritsi eta gaur egun azpiegitura publikoetan izan ziren kalteetatik 706.685,62 euroko balioa duten kalteak konpondu gabe daude oraindik, eta finantziarioa lortzeko aukerik gabe».

Egin diren obretatik Nafarroako Gobernuak larrialdikoak diren %70 bakarrik ordaindu du eta bertze guztiak Udalak ordaindu behar izan ditu. Nekazaritza azpiegiturentzat eta nekazaritzako kalte pribatuentzat ez zuten inongo dirulaguntza berezirik eskaini. «Orduan diru gehiagorik ez zegoe-la erran ziguten eta Estatuari zegokiola hori or-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Antxitoneko paleta goma txapelketako finalak

Elizondoko Antxitonea trinketeak antolatzen duen paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 21ean. Kategoria nagusian, Unai Meokik eta Guillermo Etxeniketik 40-35 irabazi zieten Josetxo Huarte eta Mitxel Etxenikeri eta bigarren mailakoan, Gorka Urtasun eta Unai Barberenak 40-32 irabazi zieten Javier Galarregi eta Iñaki Urrutiari. Trinketea ikuslez gainezka ageri zen eta sari banaketaren ondotik, txanpain-edatea eta bazkaria ere izan zuten.

daintzea. Udalaren ustez Nafarroako Gobernuaren betebeharraren ez-ohiko dirulaguntzak bideratzea kalte horiek ordaindu ahal izateko. Kontseilariaren erantzuna izan zen, hori bertze nafar guztiak diskriminatzea izango zela».

Udal ordezkariak sorpresa izan dute martxoaren 17an Tokiko Administrazio zuzendari nagusi zein teknikariek izan duten bileran jakinarazi baitiete 2015eko kasuan Nafarroako eta Estatuko Gobernuak dirulaguntzekin larrialdiko kalteen %100 ordainduko zituztela. Hor-taz aparte, nekazaritza azpiegiturentzat ere dirulaguntzetan %100 ordainduko zitzaiela eta errekan ere konfederazioak egiten ez dituen lanetan Nafarroako Go-

bernuak %100 ordainduko duela. Bertze aldetik nekazariarentzat ere dirulaguntzak izango dira uholdeengatik irabaziko ez dituzten diruak kobratzeko.

Udal ordezkarien erranetan, «hondamendietan ere lehenengo eta bigarren mailako nafarrak gaudela sinistarazi nahi digute». Gobernuaren jorkabide «klientelista eta diskriminatzailea» salatu nahi dute, «ustelkeria bultzatzen duen jokamoldea delakoz». Horregatik, Udalak berriro ere eskatu du 2014 zein 2015eko hondamendi kasuetan Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak bideratu ditzen kalteen %100 ordaindu ahal izateko eta ez dezala dirua banatu afiliazio politikoen arabera baizik eta beharren arabera.

### FLASH

#### Eñaut Elorrietaren Deserriko kantak

Eñaut Elorrieta abeslari ezagunak *Deserriko kantak* kantaldia eskainiko du apirilaren 12an, igande arratsaldeko 7etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako ekimenean edukiera mugatuko da.

#### Liburuaren Nazioarteko Eguna

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, apirilaren 14an, astearte arratsaldeko 7etan *Kapital publikoa* liburuaren aurkezpena eta errezitaldia izanen da Arizkunenean, Jose Luis Otamendi idazlearekin. Apirilaren 22an, berriz, Patricia Eneriz ipuin kontalaria izanen da Elizondoko liburutegi publikoan, 4 urte-tik goitiko haurren-eko ipuinak kontari. Bi ekitaldiak Udaleko Kultura Batzordeak antolatu ditu.

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua  
Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T. 948 453 060 · AMAIUR  
www.mendialdea.com

KULTURA → MARTXOAREN 21EAN

## Haur kantari jaialdiko saio ederra Elizondon

150 abeslari inguru atera ziren Lur-eko oholtzara

### TTIPI-TTAPA

500dik goiti kantari, musikari eta kantuzale bildu ziren martxoaren 21ean Elizondoko Lur aretoan izan zen Nafarroako Haur eta Gazte-ko Kantarien Jaialdian.

Emanaldi bizia eta antitza izan zen Elizondokoa. Baztan, Male-

rreka, Bertizarana, Goizueta eta Eugiko haur eta gaztetxo kantarien hamahiru taldek, bi bikotek eta bakarlari bakarrak (Enara Arregi Otegi azpilkuetarra, hain zuzen) hamazazpi kanta taularatu zituzten.

Sormenezko kantuetan, Baztan Ikastolako 6. mailako neskamutikoen Iñigo Belzunegi "Iturriak" sortutako melodia eta Jon Barbarena bertsolariaren hitzak dituen *Motorrak berotzen* izeneko kantarekin



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan ikastolako 6. mailako ikasleek *Motorrak berotzen* kantatu zuten.

parte hartu zuten. Berziki larunbateko saiorako Iturriak Dj Nashekin batera egindako moldaketa izan zen.

Jaialdia borobiltzeko, kantaldiaren akabailan, Mendaur Trikitixa Eskolako Neskatzak taldeak eta Trikidantzeko Arkaitz eta Jorgito mu-

sikariek elkarrekin Kepa Junkera eta Sorgi-

naken kanta eskaini zuten.



### Ba al zenekien...

Nafarroa Oinezen baitan gauzatzen ari den *Txi-kiak Handi* hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatzen duen egitasmoa gauzatzen ari dela. Poloniako kaxubiarrekin ari dira elkarlanean eta hizkuntza horretan ari den irratia bateko arduradunak izan dira egunotan Baztanen bixitan.

# LANBIDE HEZIKETA

## LAN EGIN GUSTUKO LANBIDEAN IES ELIZONDO BHI

AUREMATRIKULATU APIRILAREN 13tik 17ra

GOI MAILA - ERDI MAILA - OINARRIZKOA

### ADMINISTRARITZA

ERDI MAILAKO ZIKLOA

### MEKANIZATUA

TEKNOLOGIKOA—ZIENTIFIKOA

### PRESTAKETA

OINARRIZKOA

### SOLDADURA



[ieselizondobhi.educacion.navarra.es/web](http://ieselizondobhi.educacion.navarra.es/web)

## BAZTAN

GIZARTEA → APIRILAREN 10EAN

# Udaberriko Feria berrikuntzekin dator aurten

Aitzinetik Gasnaren Astea ere prestatu dute

## TTIPI-TTAPA

Udaberriko Azienda FERIA apirilaren 10ean egingen da. 10:00etan hasita, azienda feria eta XXVII. Ahari lehiaketa egingen dira eta goiz-arratsaldez artisautza eta bertako produktuen FERIA Foruen Plazan. 11:00etan Arizkungo txistulariak ariko dira eta 11:30ean urteko ardi gasnaren mozketa ekitaldia egingen da eta gero gasna lehengo moduan nola egiten zen erakustaldia. Eguerdian Baztango Dantzari Tikiak ariko dira eta segidan baztan-zopen dastatzea izanen da. 13:30 aldera sari banaketa egingen da Merka-

tuko Plazan. Arratsaldean umeentzat taileerak ere izanen dira.

Udalak, Cederna-Garalur-ek, Hazitik hoxiek eta Baztango gasnagileek antolatu eta babesten duten Udaberriko FERIA baino lehen ere, Gasnaren Astea antolatzekotan dira.

**Apirilaren 3tik 9rat**, Baztango gasnategietarat bisitaldiak egingen dituzte eta dastatzeko aukera ere eskainiko dute. **Apirilaren 3an**, Elizondoko Aise elkartearen gasna erakusketa-dastaketa egingen da, ardo eta sagardoarekin uzartuz, 19:30ean. Aitzinetik izena eman behar da 675 550960 telefonoan (Aitor Azkarate), 5 euro ordainduta. **Apirilaren 8an**, "Gasna, hemengo elikagai osasuntsu bat" solasaldia eskainiko du Amaia Meokik 19:30ean Arizkunenea Kultur



UTZITAKO ARGAZKIA

## Berroeta eta Anizko gazteak sagardotegira

Berroeta eta Anizko gazteak Astigarragan egon ziren sagardotegian martxoaren 14an. 30 pertsona joan ziren eta ederki pasa zuten eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztandarrak txapeldun Nafarroako plater tiraketa txapelketan

Zigako Bixente Lakosta laugarren kategorian (ezkerrean) eta Arraiozko Enrique Bengoetxea hirugarrenean (eskuinean) Nafarroako txapeldun suertatu dira fosso olinpiko modalitateko plater tiraketa txapelketan, Valdorban jokaturako finalean. Erdian, lehen eta bigarren kategorian txapeldun izan zen Alfonso Esparza dute.

Etxean. **Apirilaren 9an**, dastaketa-tailerra egingen dute eguerdian Elizondoko Lanbide Esko-

lan. Antolatzailerek "Bertakoa Baztangoa" markari indarra eman nahi diote ekimen honekin,

herritarrek ohartarazteko bertako produktuen kontsumoak duen garrantziaz.



**GARCIA PELLEJERO**  
ALTZARIAK SOFAK KOLTXOIAK

EGONGELAK LOGELAK  
MAHAIK ETA AULKIAK  
LARRU ETA TELAZKO SOFAK

# IXTE-LIKIDAZIOA

## APIRILAREN 30ERA ARTE BAKARRIK

IRURITA • Zaldubia Industrialdea • T. 948 54 65 85

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

# BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**  
**HORIAN** SARTU BEHAR DITUZUN  
ONTZI ARINAK

# BAI

## PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ozpina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko  
ontziak, latak  
eta brikak

Hutsak eta janari  
hondarrik gabe  
sartu behar dira  
edukiontzian

## ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...



[www.baztangoudala.eus](http://www.baztangoudala.eus)




[www.malerrekakomankomunitatea.com](http://www.malerrekakomankomunitatea.com)



[www.bortziriakzabor.com](http://www.bortziriakzabor.com)

## BRIK ONTZIAK



Brik ontziak  
(zukuak, esnea,  
arrautza likidoa,  
ardoa...)



**ECOEMBES**

[www.ecoembes.com](http://www.ecoembes.com)

# ZUGARRAMURDI

KULTURA → URRIAREN 31 ARTE

## Juan Larraren panpinak Museoan ikusgai

Gan den urtean Caro Barojaren mendeurreneko erakusketan izan ziren Beran

### Margari eta Koro

Martxoaren 27an inaugurazio berezi bat egin zen museoan: hanbat toki-txokotan, Juan Larra margolariak egindako, tamaina naturaleko panpin berezi

batzuk jarri dira. Panpin edo eskultura hauek gan den urtean Berako Kultur etxean egon ziren, Julio Caro Barojaren oroimenez egindako erakusketa batean. Eta orain Zugarramurdi izanen dira, urriaren 31 arte, gure museoko erakusketan txertatuta.

Adibidez, andre zahar bat akerraren ondoan, kandil eta betaurreko batzuekin akerrari begiratu. Edo bertze emakume bat kaiolan preso ageri da, sofri-

mentu bisaikin. Bertze bat sukaldean dago, sendabelarrekin edabek prestatzen. Denetara sorgin zahar bat sukaldean, sendabelarrekin edabek prestatzen eta dastatzen ari dena gisa huntako 6 panpin eman dire museoan zehar.

### Argazki rallia

Aitzineko alean aipatu zen bezala, Lezeen Eguna zela eta, argazki rallya antolatu zen.

Dozena bat parte



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Argazki rallian parte hartu zuten dozena bat lagunek, horietako bat Elx-etik etorria.

hartzaila izan ziren, eta herritarrez gain, gehienak hurbilekoak ziren, adibidez, Elizondo edo Berakoak. Bertze batzuk pixka bat urrunagoak, Berriozartik etorritakoak; eta urrunagotik ere hirukote bat animatu zen: Elx-etik.

Eguraldialdetik, fran-

ko denbora kaxkarra egin zuen, baina argazkilarientzat egun pulita eta argia izan omen zen.

Sarituak zein diren jakiteko, apirilaren 7ra esperatu beharko dugu. [www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com) web orri- an jakinaraziko da (eta baita Ttipi-Ttapan ere).



UTZITAKO ARGAZKIA

### 1961-62-63koen kinto besta

Martxoaren 21ean Zugarramurdi eta Urdazubiko 1961-62 eta 63 urtean sortutakoek Kinto-besta egin zuten Azketa jatetxean. 24 lagun elkartu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 1961-62-63koen kinto besta

Dantxarinetatik sartuz, martxoaren 20ko goizean ailegatu zen Korrika gure eskualdera. Nafarroako lehenbiziko kilometroa Zugarramurdikoek egin zuten.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA · TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinetatik  
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
[montxoblanco@gmail.com](mailto:montxoblanco@gmail.com)

**PRIM, c.b.**  
 Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
 Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
 Zugarramurdiko errep. 3.km  
 URDAZUBI

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea



ABELZAINZA → KALTE HANDIA ERAGINEN DIE LABORARIEI

# Abereen tuberkulosia duten 200 behi hilko dituzte ondoko egunetan

Mixel Mendiburuk uste du beharrezkoa dela garaia ongi sakontzea

## Franck DOLOSOR

300 behi inguru hil beharko dituzte Ainhoan eta Senperen tuberkulosi kasu batengatik. Egoera kontrolpean dago eta ez omen dago arriskurik kutsadura sortzeko Frantziako gobernu ordezkari eta albaitarien arabera. Dena den, kalteak biziki handiak izanen dira behiak galduko dituzten laborarientzat. Kalte ordainak eskuratuko dituzte baina gauza ageria da kolpe handia izanen dela. Senperen beran, konparazioan, 192 behi hil beharko dituzte. "Behiak hiltegiat eramanen dituztelarik, orduan min izanen dugu" dio hunkitua den laborari batek. Duela aste batzuk susmoa agertu zen eta geroztik egin diren ikerketek egiaztatu dute behi tuberkulosi kasua sortu dela hego Lapurdin. Laborariek ez dituzte gehiago behiak kanporat ateratzen. Albaitarien arabera kutsatzeko arriskurik ez da



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

## EusKAHALdunak

Alegeratasuna izan da nagusi aurtan ere Korrika gure herritik pasa delarik. Euriak ez ditu senpertarrak lotsatu eta kilometra bakoitzean jende andana prest egon da aldi huntan ere AEKren aldeko lasterkaldian parte hartzeko. Euskarren lekukoa Saratik etorri zauku eta uztaiztarrei eman zaie gero. Agian noizbait aintziraren inguruan ere ibili beharko luke Korrikak? Herri Urratsi esker euskaltzaleek ongi ezagutzen duten lekua da Ortzango erreka.

ez bada biziki hurbil egoten denbora luzean. Azkonek edo basurdeek heda dezakete jadanik duela zenbait urte agertu zen gaitza.

## Merkataritza aitzina

Karrika nagusia hats berria hartzen ari da fruitu

saltzaille batek denda berri baten atea ideki baititu berriki Mundutegian. Gauza bera egin du ostatu ttiki batek, lehenago optika zen tokian, eta bertze bi ostatu la-

nean hasiko dira ondoko asteetan, Mattinaurrenean eta Elizabidean. Berri onak dudarik gabe herri barnean bizirik ikusi nahi dutenentzat.



## Ba al zenekien...

Apirilaren 12an egingen dela, hamazazpigarren aldikotz, Hatsaren Poesia Eguna

## HAUTESKUNDEAK

Lehen itzulian UMP izan da bozkatuena Senperen eta Laborderen taldea Saran

## TTIPI-TTAPA

Departamentuko bozen lehen itzulian Saran Laborde herritarren independenteak taldea izan da bozkatuena, eta bigarrena EH Bai. Senperen UMP izan da bozkatuena eta EH Bai eta Laborderen independenteak taldea bigarren eta hirugarren gelditu dira. Uztaizte-Errobi eta Urdazuri ibarreko emaitzak kontuan hartuz, UMP eta EH Bai lortu dute bigarren itzulira pasatzera. Laborde saratarraren taldea hirugarren indarra izan da, eta beraz, bigarren itzulitik kanpo gelditu da. Bi herrietan abstentzioa altua izan da. Saran erroldan izena emana zuten 1.961 hautesleetatik 932 abstentitu egin dira (%47,53). Senperen 4.503 hautesleetatik 2.148 abstentitu dira (%47,70).



**4**  
LOTE  
ZOKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

**ARKUPE**  
Gozotegia · Txokolategia

Elizondo-Irurita (Nafarroa) · Tfn. 948 45 23 93  
info@arkupegozotegia.com · www.arkupegozotegia.com



## SARA

OSPAKIZUNAK → APIRIL HASIERA

# Kulturak toki handia izanendu Bazko asteburuan

Astelehenean  
32. Idazleen  
Biltzarra

## Joana GERENDIAIN

Urtero bezala bazko asteburuan kulturari toki handia emana izanen zaio. Apirilaren 6an, bazko astelehenez, 32. Idazleen biltzarra eginen da polikiroldegian. Goizeko 10etan idekiko da, 10:15ean Eusko ikaskuntzaren beken ematea eginen da, 10:45ean Euskaltzaindiaren liburuak aurkeztuak izanen dira, 11:15ean Bernardo Atxaga idazleak min-

tzaldi bat eginen du, eguerditan Jean Haritschelarrri omenaldi bat eginga izanen zaio.

Asteburu osoan Lur Berri gelan eskuen lanak eta denen etxean larrungo koloreak elkarrekin haien erakusketak eginen dituzte.

Bertzalde asteburu horretan Herri Urratsen jantziak salgai izanen dira plazan eta biltzar egunean polikiroldegian.

## Sarako merkatua

Apirilaren 17tik goiti, ostiral arratsaldeko 4:30etik arratsa arte merkatu bat eginen da



UTZITAKO ARGAZKIA

## Izate enpresa ttikia muntatu du Emilie Leizagoyen herritarrak

Emilie Leizagoyenek, Sarako neska gazte batek, Izate deituriko enpresa ttikia muntatu du, ile-apainketak eta masajeak proposatuz. Mota ezberdinetako masajeak egiten ditu eta maiatzetik goiti haurdun diren emazteentzako eta nini-entzako masajeak (amak ikasteko zein manipulazio egin etxean) ere proposatuko ditu. Ilea mozteko etxeetara ere mugitzen da.

plazan. Sarako merkaturako proiektua ekoizle talde ttiki baten gogoetatik sortu da, haien helburua kalitatezko eta tokiko ekoizkinak saltzea izanez. Merkatua urte osoan eginen da 9 ekoizlerekin eta ondoko ekoizkinak aurkitzen ahalko dira: idikia, xerriak, gasnak (ahuntz, ardi eta behi), barazkiak, fruituak, oilaskoa, arroltzeak, sagarinoa, Ezpeletako piperra, erreximentak, iaurtak eta bertze. Merkatu hau

udan ere eginen da, garai horretan artegintzako artisauak gehituko dira.

## Kirol emaitzak

Martxoaren 14-15eko asteburuan eskubaloian, 11 urtez azpikoek Kanboren kontra 15-11 irabazi dute; 13 urtez azpikoek Orthezen kontra irabazi dute 31-19; 15 urtez azpikoek Escoubesen kontra 11-9 irabazi dute; 18 urtez azpikoek Kanboren kontra berdinketa lortu

dute 19-19; seniorrek Ganen kontra 25-21 galdu dute. Errubian Puioilloren kontra 17-8 irabazi dute.

Martxoaren 21an eskubaloiko ekipa guzietan irabazi dute, 11 urtez azpikoek Nafarraroaren kontra 10-6; 13 urtez azpikoek Hendaiaren kontra 29-11; 15 urtez azpikoek Larunen kontra 15-12; 18 urtez azpikoek Urruñaren kontra 22-18 eta seniorrek, azkenik, Senperen kontra 18-15.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



**Martzutzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

 Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425

## EZKONTZAK

**Mario Santos Lima Dias** eta **Fanny Olano Ramos**, Portugal eta Perukoa, Donezteben, martxoaren 14ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Eneko Iparagirre**, Sarakoa, martxoaren 4ean.  
**Araitx Ormaetxea Erro**, Lesakakoa, martxoaren 14ean.  
**Inhar Alzuguren Barberena**, Zigakoa, martxoaren 20an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Sheila Mitxelena Elizondo**, Arantzakoa, martxoaren 12an, 18 urte.  
**Miguel Sanzberro Mitxelena**, Etxalarkoa, martxoaren 13an, 75 urte.  
**Francisco Zenoz Oiaregi Matxinto**, Elizondon, martxoaren 14an, 90 urte.  
**Joaquina Zestau Zabaleta**, Leitzaakoa, martxoaren 16an, 94 urte.  
**Modesta Mikelperizena Endara**, Berakoa, martxoaren 16an, 79 urte.  
**Francisco Iriarte Goñi**, Arraizkoa, martxoaren 17an, 77 urte.  
**Maria Cruz Sancha Blanco**, Elizondokoa, martxoaren 18an, 89 urte.  
**Ana Maria Apeztegia Petite**, Doneztebekoa, martxoaren 22an, 86 urte.  
**M<sup>a</sup> Petra Petrirena Etxeberria**, Sunbillakoa, martxoaren 22an, 61 urte.  
**Juan Mugiro Amiano**, Elizondokoa, martxoaren 24ean, 83 urte.  
**Marceline Sanzberro**, Sarakoa, martxoaren 21ean, 89 urte.  
**Jean Laborde Lavignette**, Sarakoa, martxoaren 23an, 85 urte.



### Modesta MIKELPERIZENA ENDARA

06/11/1935 - 16/03/2015

*Etzazuela neregatik nigar egin,  
Primaberako kantu berria  
loratu egin zait ahoan  
Eta Jaunaren atsedenean  
hatsa biziberritu.*

**ZUEKIN BETIRAKO, MODESTA.**



*Oroigarriak egiten ditugu*

 **ttipi-ttapa** Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

PILOTA → LEHEN ALDIZ ETXE LAGUNTZAILEEN 'ABIZENA' IZANEN DUTE TALDEEK

# Hameka talderekin abiatu da XXXVI. Baztan-Errekako laxoa txapelketa

Abuztuaren 1ean jokatu da finala Iruritan

## TTIPI-TTAPA

Martxoaren azken asteburuan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren 36. edizioa. Hameka talde ari dira aurten, 5 Doneztebekoak, 3 Arraiozkoak, 2 Irurritakoak eta Oizkoa. Berrikuntza moduan, izenaren ondotik, babesle duten etxearen izena eramanen dute taldeek aurten.

Bi multzotan banatuta ariko dira taldeak. A multzoan bost talde izanen dira: Irurita-Miguelene eraikuntzak (Xabi Barberena, Gorka Urtasun, Jagoba Ramos eta Egoitz Prim), Arraioz C-Lur Sagardia (Xa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten bi talde plazaratuko dituen Iruritik hartuko du finala.

bier Bengoetxea, Daniel Saldias, Miguel Maritorea eta Sergio Navarro), Oiz-Kokoetxea gaztandegia (Andoni Saldias, Lander Mendiola, Ugutz Zelaia eta Iñaki Mendiola), Doneztebe-Suma (Unai

Sapuppo, Josu Juarena, Xabier Ibarrola eta Joseba Grazenea) eta Doneztebe-Apezteguia burdindegia (Ramontxo Etxebeste, Jon Apeztegia, Aritz Baleztena eta Iban Santesteban).

B multzoan, berriz,

sei talde ariko dira: Irurita-Biek aholkularitza (Joseba Urtasun, Oscar Urrutia, Iñaki Etxandi eta Karlos Goikoetxea), Arraioz B-Lur Sagardia (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Aritz Alunda eta Xabier Maritorea),

Arraioz A-Lur Sagardia (Iñaki Mihura, Jon Garmio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Laurnagarai), Doneztebe-Gubai-gu (Emilio Zabala, Andoni San Martin, D. Pio Garcia eta Eloy Garcia), Doneztebe-The Moment gaur egungo txapelkunak (Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa) eta Doneztebe-Avia (Asier Mutuberria, Javier Almandoz, Bittor Mendiburu eta Juan Telletxea).

Multzo bakoitzeko lau lehenbizikoek final laurdenak jokatu dituzte ekainaren 20 eta 27an eta uztailaren 4ean; irabazleek finalurrekoak jokatu dituzte uztailaren 11, 18 eta 25ean eta final handia Iruritako plazan jokatu da abuztuaren 1ean.

PILOTA → MARTXOAREN 15EAN LESAKAN

## Bortzirietako buruz buruko finalak jokatuak

Bederatzi kategoriatan

## TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako hamalaugarren pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 15ean Lesakan. Jende aunitz hurbildu zen txapelketako

azken bederatzi partidak ikustera.

**Ttikiak:** Arkaitz Goienetxe (Txaruta), 13-Oier Prim (Txaruta), 18.

**Umeak B:** Mikel Izagirre (Ekaitza) 18 - Suhari Madariaga (Ekaitza), 9.

**Umeak A:** Oier Orbegozo (Arkupe), 9-Oihan Etxeberria (Arkupe),



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Txapelketako finalistak eta partehartzaile ttikiak, sari banaketaren ondotik.

18.

**Kimuk B:** Unai Arburua (Altxata), 4 - Ibai Baillarena (Txaruta), 18.

**Kimuk A:** Jon Pagola (Gure Txokoa), 6 - Ekain Sein (Oiarpe), 18.

**Haurrak:** Oier Ariztegi (Txaruta), 18 - Asier Baillarena (Txaruta), 10.

**Kadete B:** Aimar Otxoteko (Arkupe), 18 - Mikel Galardi (Arkupe), 3.

**Kadete A:** Ekain Etxeberria (Oiarpe), 18 - Oroitz Sein (Oiarpe), 16.

**22 urtez azpitik:** Ander Errandonea (Gure Txokoa), 22 - Andoni Lazkanotegi, 13.

LASTERKETAK → MARTXOAREN 15EAN IGANTZIN

# 151 kirolarik osatu zuten Gladiator's Day proba berezia

Emakumeen artean bigarren izan zen Leire Portu lesakarra eta gizonetan hirugarren Igantziko Mikel Urtxegi

## TTIPI-TTAPA

151 kirolarik, horietatik 38 emakumeak, parte hartu zuten martxoaren 15ean Igantzi-

ko Irrisarri Landen lehen aldiz antolatutako Gladiator's Day lasterketa berezian. Bortz kilometro eta erdi lasterka (368 metroko desnibel positiboa eta 349 metro desnibel negatiboa) egiteaz gain, tartean 15 oztopo gainditu behar izan zituzten kirolariek: sokarekin eskalada, gupil garraioa, borra, lohian arrastak ibili alanbre azpitik, sokak eta sareak igo,



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Oztopo bereziak gainditu behar izan zituzten Irrisarri Landek egindako proba gogorrean.

kamioiak eta bertze oztopoak gainditu...

Euskal Herri osotik, Errioxatik, Madriletik eta Frantziatik etorritako kirolariak baziren, baina eskualdeko korrikalari aunitzirik ez. Halere, aipatzekoa da emakumezkoetan, Beti Gazte

mendi taldeko Leire Portu lesakarrak bigarren postua eskuratu zuela eta gizonzkoetan hirugarren izan zela Mikel Urtxegi igantziarra.

Dena den, *lasterketa espartanoak* deitzen diren proba hauen goiburua dioen bezala,

bukatzea da garaipena, lohiez eta urratuz betirik baldin bada ere.

Bakarka egin zen txapelketa Irekia edo Openaz gain, Enpresen Desafioan ere parte hartu zuten, hamabi enpresa ordezkatu zituzten 44 kirolarik.

LASTERKETAK → APIRILAREN 19AN

# Aurtengoan ere jendetsua izanen da Berako Mendi Maratoi Erdia

Ordubete eskasean agortu ziren 525 dortsalak

## TTIPI-TTAPA

Berako XI. Mendi Maratoi Erdia apirilaren 19an egingen da eta aitzineko hamar edizioetan bezala, partehartzaile aunitz izanen ditu. Bistan da gisa honetako

lasterketak puri-purian daudela inguru honetan. Horren erakusgarri, Manttalen eskuragai jarri dituen 525 dortsalak lehenengo egunean agortu zirela. Izen-ematea martxoaren 16an, goizeko 9etan ireki zen baina segituan itxi ere egin behar izan zuten, kupoa 50 minututan bete baitzen. Behin izen ematean kupoa beteta, itxarrote zerrenda bat ire-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gogotsu daude kirolariak aurtengoan ere Berako Mendi Maratoi Erdiari ekiteko.

ki da [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

Didier Zago, lasterketa 5 aldiz irabazi duena eta Manttalerekin aterako dena lehen aldiz, Oier Ariznabarreta

eta Laura Sola iazko irabazleak, Aitziber Ibarbia bigarren iaz, edota beteranoen artean Carlos Garcia, Alizia Olazabal, Nerea Amilibia eta Izaskun Zubizarreta, hauek denak 2014ko


podiumean egondakoak dira, Beran izango dira aurteten ere.

Izen-ematearen inguruko edozein arazo edo dudarik izanez gero [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) era idatzi behar da.

## apirilak 2 - 16

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eu](mailto:info@ttipi.eu) edo 948 63 54 58

## Tailerrak



GOIZUETA | 2015.04.11

**Bioenergetika eta chikun tailerra antolatu dute**

16 urtetik gorako gizon eta emakumeentzat antolatu dute. 10:00etatik 13:00etara Teresa Martinez, Maite Perurena eta Mintxo Asiainek emanen dute Garbaran.

## Azokak



ELIZONDO | 2015.04.10

**Udaberriko Feriarekin borobilduko dute Gasnaren Astea**

Gasnaren Astea borobiltzeko apirilaren 10ean Udaberriko Feria eginen da Elizondon: ahari lehiaketa, artisaauk eta bertako produktuak, dantzariak, tailerrak...

## Topaketak



DONEZTEBE | 2015.04.19

**Nafarroako Akordeoilarien Topaketa**

Nafarroako akordeoilariek Donezteben egin dute hitzordua: 11:30ean kalejira eginen dute herriko karriketan eta 14:00 bazkaria Santamaria jatetxean.

## ARANTZA

**Txamukos taldea**

**Apirilaren 3an** Burlada ostatuan, 23:00etan.

## ELIZONDO

**Korrontzi eta Guratz Dantza Taldea**

**Apirilaren 4an** Lur Aretoan.

**Eñaut Elorrietarekin 'Deserriko kantak'**

**Apirilaren 12an** Arizkunenean, 19:00etan.

**Kantak**

## ITUREN

**Malerreka kantuz**

**Apirilaren 4an** 12:00etan plazan.

## BERA-IBARDIN

**Kantu zaharren afaria**

**Apirilaren 11n** Mendiko sagardotegian, 20:30ean.

**Topaketak**

## DONEZTEBE

**Nafarroako Akordeoilarien Topaketa**

**Apirilaren 19an** 11:30etik aitzinera.

## SARA

**XXXII. Idazleen Biltzarra**

**Apirilaren 6an.**

**Ospakizunak**

## SUNBILLA

**III. Pintxo Astea**

**Apirilaren 2tik 5era.**

## DONEZTEBE

**Arkupeak Elkartearen Soinketa besta**

**Apirilaren 9an.**

**Azokak**

## ELIZONDO

**Baztango artisaauk**

**Apirilaren 3 eta 4an** plazan, 10:00-14:00.

## BAZTAN

**Gasnaren Astea eta Udaberriko Feria**

**Apirilaren 2tik 10era.** Udaberriko Feria apirilaren 10ean.

**Erakusketak**

## ELIZONDO

**Margo erakusketa**

**Apirilaren 5era** arte Juan Luis Toralbaren lanak, Arizkunenean.

## SARA

**Lehen Mundu Gerlaz**

**Apirilaren 6an** egun osoan, Oihaletxearen azpian.

**Margo, eskultura eta eskulanen erakusketa**

**Apirilaren 4tik 6ra** Denen Etxean eta Lur Berri gelan.

## BERA

**'Kurdistan gaineko sei begirada'**

**Apirilaren 12ra** arte argazki erakusketa Kultur Etxean.

**Solasaldiak**

## BERA

**'Aniztasuna eta dibertsitatea Ekialde Hurbilean'**

**Apirilaren 14an** Beralandetan (19:00).

**'Kurduen garaia ailegatu ote da?'**

**Apirilaren 16an** 19:00etan Beralandetan.

## ELIZONDO

**'Kapital publikoa' liburuaren aurkezpena****eta errezitaldia**

**Apirilaren 14an** Arizkunenean, 19:00etan.

**Tailerrak**

## ARANTZA

**Anixe Elkartearekin eskulanak haurrentzat**

**Apirilaren 7tik 10era.**

## BERA

**Meditazio saioa**

**Apirilaren 17an** Beralandetan, 18:30ean.

## LESAKA

**Oinarrizko argazkigintza digitalaz ikastaroa**

**Apirilaren 15etik ekainaren 3ra.** Izena: 689 285535.

## GOIZUETA

**Bioenergetika eta chikun tailerra**

**Apirilaren 11n.** Izena apirilaren 10erako 948 510840ra deituz.

**Xake ikastaroa**

**Apirilaren 11tik aitzinera** Umore Ona Elkarteak antolatuta.

## ELIZONDO

**'Oinarrizko RCP'**

**Apirilaren 15ean** 18:00etan.

## PROPOSAMENA

## SARA

**Euskal Herriko Idazleen Biltzarra Saran**

XXXII. aldiz Euskal Herriko hainbat idazleren topaleku bilakatuko da Sarako kiroldedia apirilaren 6an. 10:00etatik 18:00etara idazleek liburuak aurkeztu, saldu eta sinatuko dituzte. Egun osoan, Lehen Mundu Gerlaren inguruko erakusketa ikusteko aukera ere izanen da. Horrez gain, apirilaren 4tik 6ra margo, eskultura eta eskulan erakusketak antolatu dituzte Saran.



ARGAZKIA: EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

SARA

**Merkatua**

**Apirilaren 17an** plazan 16:30etik aitzinera.

**Lehiaketak**

BERROETA

**'Berroeta' argazki lehiaketa**

**Apirilaren 23ra** arte aurkez daitezke lanak.

BAZTAN

**Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketa**

**Apirilaren 17ra** arte aurkez daitezke.

LESAKA

**Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa**

**Apirilaren 17ko** 13:00 arte aurkez daitezke.

MALERREKA

**Argazki eta kontakizun lehiaketa**

**Apirilaren 24ra** arte aurkez daiteke *Male-rrakako leihotik begira. zuk zeuk nola ikusten duzu?* lehiaketara.

**Zinema**

DONEZTEBE

**Denboraldiko azken filmak**

**Apirilaren 12an** *Las Aventuras de Peabody y Sherman*.

**Apirilaren 26an** *Horton* filma euskaraz.

BERA

**Dokumentala**

**Apirilaren 18an** *Muztagh (7.546 m)* Beralandetan, 20:00etan.

**Mendi irteerak**

BAZTAN

**Mendigoizaleak**

**Apirilaren 12an** Elizondotik Hondarribiara, 06:00etan abiatuta.

BERA

**Mendi Maratoi Erdia**

**Apirilaren 19an** 09:30ean hasita.

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**  
GIZONEZKOEN SEXISMOA MASKULINOTASUNA ETA ASKAPENA BERDINTASUNERANTZ  
XABIER ODRIOZOLA  
Metaziri, 2015

**P**atriarkatuaren menpean, heteroseximoaren munduan hazi eta hezitako gizon belaunaldi batzuei buruzko ideia andana ageri da liburu honetan, Euskal Herrian sexismoa eztabaidatzeko eta jendarte justuago eta berdintsuago baten alde lan egiteko azken hamarkadetan antolatu diren gizon taldeen bizipen zuzenetatik ateratako ondorioak. Gizonek euren artean sortzen duten indarkeria eta, batez ere, emakumeekikoa murrizteko tresna eraginkorra izan nahi du liburuak. Nolanahi ere, ez da liburu itxia ala osoa, izan ere, oraindik gizonen pentsamenduan gehiago sakondu eta garatu beharreko arlo andana badela uste baitu idazleak, bai personal mailan zein talde mailan. Metaziri kolektibo editorialak argitaratu du Xabier Odriozola Ezeiza donostiarraren liburu hau, «jendarte eraldatzeko xedearekin, pentsamendu kritikoa bulkatuz eta hausnarketa ezberdinak irekiz lanean segitzen dugulako».


**Musika**  
skakeitan  
orekariak  
Orekariak  
SKAKEITAN  
Mauka

**O**rekariak izena darama Skakeitan talde donostiarraren iraupen luzeko bigarren diskoak. 2012an argitaratutako *Ahots gabekoen ahotsa* izan zen taldearen lehenbiziko diskoa, eta bi urtez kontzertu ugari eskaini eta gero, Usurbilgo Higain Estudioetan grabatu dute lan berria, Haritz Harreguy soinu teknikariaren gidaritzapean. Musikalki koktelera koloretsua da Skakeitan, rocka, ska, reegee edota erritmoa beroak uztartuz beraien kantuetan. Hamar kanturekin osatu dute lan berria: *Erantzunik Gabe, Hondarraren Gaiean, Armiarma Gorria, Noraino, Iraganeko, Erosotasunetik at, Maitasunari, Ohorezko Landak, Dilemak* eta *Orekariak*.

**Internet**  
Nafarroa Oinez Interneteko ataria  
WWW.NAFARROAOINEZ.NET

**B**aztan Ikastolako lagunak buru-belarri dabilta Burriaren 18an *Hamabortz, Ama Bat* lelopean egingen duten Nafarroa Oinez besta antolatzen. Baina hortik haratago ekimen ugari ere paratuak dituzte martxan: 'Oinez basoa', 'Oinez gailurra', 'Txikiak handi', 'Erroka', 'Artea Oinez'... Eta ekitaldi aunitz ere egiten ari dira. Horien guztien berri biltzen du [www.nafarroaoinez.net](http://www.nafarroaoinez.net) webguneak. Atalka banatu dute eta hor kontsulta daiteke ikastolaren edo Nafarroa Oinez beraren inguruko informazioa, baita agendako ekitaldiak eta berriak ere... Nafarroa Oinezeko materialak online erosteko denda ere laster hasiko da lanean. Aipatutako ekimenen gaineko xehetasun guztiak hor daude web orrian. Argazki eta bideoz hornitutako atari koloretsua egin dute Baztan Ikastolakoe.

**Nire aukera**



**Nekane AGIRRE**  
Sunbillaiko gaztea

**«Gure hizkuntza eta kultura maite dituzte itsasoaren bertze aldetik»**

**E**uskal kultura eta herria «maite» dituen gaztea da Nekane. Zuzenbidean lizentziatua izan arren, iaz Hator Ona proiektuaren bidez Necocheako euskal etxean ibili zen irakasle. Aurrez egona zen Argentinan, ikasketa beka bati esker eta lehenbiziko bidaiaria hartan Iguazu eta Patagoniako txokoek liluratu bazuten, bigarren bidaiaria bertako jendeaz maitemindu zen «ikaragarriko esperientzia izan da hainbertze kilometrotara dagoen herri eta jendeak gure hizkuntza eta kultura nola maite eta miresten dituen ikustea». Bidaiatzea atsegin du eta aukera balu, «Argentina aldera itzuli» eta Saharako kanpamenturajoatea ere gustatuko litzaioko «Maimuna gure ahizpa txikiena eta familia bisitatzer»a. Asteburuko plan bat osatzeko ere eskatu diogu «sagardotegi batekin hasi eta igandean egun pasa batekin boro-bilduko nuke». Mendi edo hondartza aldera joanda, «konpainia onean bada, «Euskal Herri aske bat, dispertsioa amaituta eta pobrezia desagertzen dela ere amestu dut».

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONAZ-MUGAIRI.**

Etxebizitza salgai, 60 m<sup>2</sup>ko bajearekin. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekua-rekin. Bajera eta etxea elkarrekin. 112.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai. ☎948 585036.

**ANZABAL**

INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**  
- Eskaintzagarriak base-  
rriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

**ELIZONDO.** Etxebizitza salgai Abartan Karrikan. Berogailua, igogailua eta garajearekin. ☎606 412868.

**GOIZUETA.** Eguzki-Leku etxea salgai, bi bizitza egiteko aurreproiektuarekin. ☎649 753484.



**LESAKA.** 98 m<sup>2</sup>ko pi-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

sua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela su bajuarekin, sukalde despensarekin eta moblezatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**ETXALAR.** Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bistazoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



**DONEZTEBE.** 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. 300 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

**SANLUCAR DE BARRAMEDA** (Cadiz). Atikoa errentan emateko, garajearekin. Erdigunean. Egun-data interesgarriak: apirilean Sevillan, maiatzean Jerez eta Rocioa, ekainean Sanlucar de Barrameda... ☎618 962650.

**BERA.** Etxebizitza errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, berogailua, trastelekua. ☎678 363398 / 678 305250.

**IRUÑEA.** Txantrea auzoan logela bat errentan emateko. Pisukide euskalduna eta Iruñeko erdigunetik 10 minutura. Nahiko alokairu merkea. ☎653 385136.

**DONEZTEBE.** Duplexa errentan emateko. Su-

kaldea, egongela, koluma eta 2 logela. 300 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**BERA.** Herri erdian etxebizitza errentan hartuko nuke. Beheko solairuan eta lur eremu ttikiki batekin. ☎620 848111.

**ETXEBIZITZAK**

konpartitzeko

**BERA.** Neska edo mutila behar da Agerran pisua konpartitzeko. Pertsona ordenatua eta arduratsua. ☎662 585965.

**GARAJEAK/LOKALAK**

salgai

**LESAKA.** Eltsetako plazan lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

**ELIZONDO.** Braulio Iriarte karrikan lokal komertziala salgai. ☎606 412868.

**ELIZONDO.** Erlategi Karrikan garajea salgai. ☎606 412868.

**LESAKA.** 93 m<sup>2</sup>ko bajea salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

**LESAKA.** 48 m<sup>2</sup>ko bajea salgai edo errentan emateko, Koskontako Bidea 3. zenbakian, beheko solairua 6. Alarma sistemarekin, pertsiana elektrikoarekin eta bi komunekin. Bulegoa izateko prestatua. ☎609 445769.

**LEITZA.** 14 gelako Jai-Alai ostatua salgai, oso egoera onean. ☎606 365798.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

**LESAKA.** Eltseta karrikan 2 lokal, bakoitza 44m<sup>2</sup>koa, errentan emateko. Aukera dago biak

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(martxoaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 47 € (=)

**Zerri gizona**  
1,148 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,450 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,16

**1.koa** 4,96

**2.koa** 3,78

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,26

**1.koa** 4,00

**2.koa** 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 120,00

idixkoak 238,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,50

8-10 kilokoak: 5,50/5,70



batera (88m<sup>2</sup>) edo bakararra (44m<sup>2</sup>) alokatzeko. ☎600 657020.

**IRUN.** Ostatua errentan emateko. Geltokia eta Zona Limite diskotekatikhurbil. Hirigunean. Ekipatua. Prezio negoziagarria. ☎636 858512.

### GARAJEAK/LOKALAK errentan hartzeko

**BERA.** Bajera bat errentan hartu nahi da. ☎637 265587.

### LANA eskariak

**ARANTZA.** Neska bat etxeko lanetan, zerbitzari, sukaldari laguntzaile, umeak eta adinakoak zaintzen ariko litzateke. ☎606 304610.

**Hemengo neska euskalduna** haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten ariko litzateke. Esperientziarekin. ☎616 037637.

**IPARRALDEA eta IRUÑEA ALDEA.** Emakumea interna bezala lanean ariko litzateke: etxeak garbitu, haur edo helduak zaintzen. ☎605 527716.

**BAZTAN, DONEZTEBE...** Pertsona helduak zaindu eta ezintasunen bat duen jendea zaintzeko eta ostalaritza lanetarako emakumezkoak prest. Mantentze lanak egiteko ezagutza ere badu (margotzeak, lorezaintza...). ☎677 643475.

**Neska euskaldun** batak dendan esperientziarekin, umeak zaintzen edo bertze edozein gauzatan lan egingen luke. ☎687 222320.

**MALERREKA, BAZTAN, BORTZIRIAK...** Gazte bat edozein lanean aritzeko prest: egurra moztu, paretak margotu, trastoak garraiatu... ☎659 655178.

### LANA eskaintzak

**IBARDIN.** Arropa eta zapata-dendan lan egiteko lagun bat behar du-

te, esperientzia duena eta frantsesez dakiena. Bidali curriculuma: *beo laetxea@gmail.com*.

**IBARDIN.** Benta batean zerbitzaria behar da egun erdiz lan egiteko. Esperientziarekin eta frantsesez dakiena: Bidali curriculuma: *beo laetxea@gmail.com*.

**URDAZUBI.** Ikaburua jatetxean, igande eta jai-egunetan lanean aritzeko zerbitzaria eta fregaderan aritzeko pertsona bana behar dira, 12:00etatik 16:00etara. ☎948 599222.

**URDAZUBI.** Montxo jatetxean emakume sukaldaria behar da. Esperientzia duena. ☎948 599039.

**ZUGARRAMURDI.** Jatetxe batean zerbitzari bat behar da. Asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez jakitea ezinbertzekoa da eta esperientzia izatea. ☎948 599187.

**ELIZONDO.** Ile-apaintzailea behar da. ☎619 099070.

### ANIMALIAK salgai

**Hiru ahari mutur gorri** salgai, gazteak. ☎697 440590.

Basurde ehizako bi hilabete eta erdiko **zakurkumeak** salgai. Aita sabueso eta ama grifona. Desparasituak, txertatuak. 120 euro. ☎637 466110.



**Hiru miga salgai:** bat ernari hiru urtekoa eta bertze bi, bi urte egingen dituztenak antzuak. ☎676 968882.

### ANIMALIAK oparitzeko

**LEITZA.** 3 zakurkume oparitzeko, ardi zakurrak, hilabete batekoak. ☎948 510224.

### DENETARIK salerosketak

Zortzi **marmolezko mahai** salgai, zortzi lagundako (oktagonalak). ☎948 585036.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma boro bildunarekin. ☎948 585036.



**ORONAZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



**Gurpildun aulki elektrikoa** salgai. Berri-berria da. Rumba Quick markakoa. Prezioa ezin

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

**11.900€**

LAGUNA III GRAND TOUR DCI 130 CV  
53.000 km - Nabigatzailea, Klimatizadorea, 6 martxa...

**14.500€**

MEGANE III LIMITED DCI 110 CV  
Estreinatua gabea - Klimatizadorea, aparkatzeko radarra, 6 martxa...

**16.900€**

SCENIC III SELECTION DCI 110 CV  
Estreinatua gabea - KM 0 Klimatizadorea, 6 martxa...

Leitzako errepedea **DONEZTEBE**  
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

hobe! ☎635 875730.



**Gasezko sukalde industrial** salgai. ☎948 585036.



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-



### IGANTZIKO UDALA

**2015eko denboraldian igerilekuen funtzionamendu lanak esleitzeko lehiaketa, sorosle lanak izan ezik**

**GAIA:** 2015eko denboraldian igerilekuen mantentze lanak, garbiketa eta funtzionamendu lanak esleipena, sorosle lanak izan ezik.

### HASIERAKO PREZIOA:

1.500,00 €, BEZA barne, denboraldi osoa (ekainaren 13tik irailaren 13a arte, biak barne).

### PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

2015eko apirilaren 23ko eguerdiko 14:00ak arte. Baldintza plegua interesdunen eskura dago Udala Idazkaritzan.

Ignantzi, 2015.03.24

Alkatea,  
M. Lourdes Ibarluzea  
Irureta

tua. ☎659 867287/ 699 461394.

← **hemen agertu nahi duzu?**

egin zure erosketa **erran.eus**en

## IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten eta argazkiarekin

**8**  
EURO  
**10**  
EURO

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Berako ANA PACHECO urteak beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak guapa zure 16. urtebetetzean!



ELAIA SANTESTEBAN AMOROSEK urtea beteko du apirilaren 10ean. Aunitz urtez eta muxu potolo bat Zubietako gure printzesa tikiari Oier, Enea, Ainere, Alaitz, Ane, Loritz, Intza, Aroa, Beñat, Udane, Ekaitz eta Ibairen partetik.



HODEI ETXEBERRIA PERURENAK apirilaren 15ean urtea beteko du. Zorionak etxeko Master Chefari Erratzu eta Elizondoko familiaren partetik. Muxu bat!



Zorionak Doneztebeko NAHIA BELARRA MARIKURRENARI martxoaren 26an 4 urte bete ditu eta. Muxu handi bat Doneztebe, Ezkurra eta Zubietako familia guztiaren partetik eta bereziki Oier, Enaitz, Ekhi eta Ainhizeren partetik. Prestatu berendu goxoa sorgintxo!



IRAITZ SARRATEA ARRETZEAK apirilaren 13an urtea beteko du. Zorionak Sunbilla eta Legasako familiaren partetik. Muxu asko morroxko!




KEMEN GARRO ORDOKI lesakarrak martxoaren 23an 4 urte bete ditu. Aunitz urtez mononoooo! Eta muxu pilaka zuretzat!



Zorionak izeba BIRI! Apirilaren 2an etorri gure etxera, bizkotxo goxo-goxoa prestatuko dizot eta! 30 muxu haundi!



Lekunberriko AIMAR ANTZIZAR BEGIRISTAINAK bi urte bete zituen martxoaren 24an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki zure anaia Oihanen partetik!



Zorionak AROA eta UGAITZ lehengusuei, apirilaren 4an 2 eta 16 urte beteko dituztelako. Bizkotxoaren zain gelditzen gara! Familiaren partetik.



Aizoainen bizi den IRAIA REMIREZ PERURENAK apirilaren 2an 7 urte beteko ditu. Besarkada haundi bat etxeko printzesari aita, ama, Janire ahizpa, Iturengo amaxi eta osaba-izebak eta lehengusuen partetik. Muxu haundi-haundi bat eta berendu goxo-goxoa prestatu guretzako.



IRAITZEK apirilaren 13an urtea beteko du. Aunitz urtez gure potoxolari eta mila muxu potolo.



OLATZ IRIARTE ITURZAETAK urteak beteko ditu apirilaren 13an. Aunitz urtez! Muxu haundi-haundi-haundie! Xe zui tre kontant, tre kontant, tre kontant! Nuz zome tre kontant....



Zorionak Gazteluko MIKEL TELLETXEA SARRATEARI. Martxoaren 26an 8 urte bete dituzu eta familia guztiaren partetik musu haundi-haundi bat, bereziki Josebaren partetik. Bizkotxo goxoa prestatu!

**ttipi txartelarekin beti irabazten da!**  
**DESKONTUAK, ZOZKETAK...**  
**TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK**  
 -%25eko DESGRABAZIOA  
**ERRENTA AITORPENEAN**  
 Eskatu zurea: 948 63 54 58  
 Info gehiago: **TTIPI-TTAPA**  
 Koskontako bidea 7 LESAKA  
 T. 948 635 458 | F. 948 635 457  
 info@ttipi.eus | www.ttipi.eus

**ZOZKETAK:**  
 634. ALEKO IRABAZLEAK

**2 SARRERA | Nafarroako Bertsolari Txapelketa**  
 M<sup>a</sup> Luisa Rekalde | **AMAIUR**  
 M<sup>a</sup> Jose Pernaute | **ELIZONDO**  
**KAMISETA BAT | Onddo ta punto**  
 Koro Arruti | **ARIZKUN**

**2 SARRERA**  
 Lesakako Udal Igerilekua  
 Jone Goia | **BERA**  
**2 SARRERA | Aquarium**  
 M<sup>a</sup> Carmen Irungarai  
**IRURITA**

**2 LIBURU | Ibaizabal "Heriovilko sekretua"**  
 Miguel Angel Cordoba | **ELIZONDO**  
 "Iker Ikerlaria"  
 Isabel Errandonea | **BERA**  
**GU TA GUTARRAK DVD+CD | Lanku**  
 Arantxa Konde  
**LESAKA**

**1**

"Piritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Xtaranga" CD+DVD  
 www.katxiporreta.com

**2**

ELE-MELE: Jolas Kooperatiboa MAHAI JOKOA  
 Urtxintxa Eskola | www.urtxintxa.eus

**3**

"Galtzagorriei to, inaxitoi!"  
 LIBURUA + DVDa  
 Lanku | www.lanku.com

**4**

**2 LIBURU**  
 Erein argitaletxea  
 "Haitzaren itzalak" / "Eskaleku"  
 www.erein.eus

**5**

**2 SARRERA**  
 Irrisari Land  
 www.irrisariland.com

**6**

**2 SARRERA**  
 Donostiako Aquariuma  
 www.aquariumss.com

**DESKONTUAK**

**SANSIÑENA TAILERRA**  
 ELIZONDO | %5 olio aldatketan

**Ostargi optika**  
 BERA | %5eko deskontua produktu guztietan

**nafarpres**  
 ELIZONDO | %10 liburu eta ikas materialietan, testu liburua eta bidaiak izan ezik

**ELBETEko POSADA**  
 ELBETE | %10, kartan, 30€tik gorako gastuan

**bixkiak**  
 KIBOI ETA MODAKO erropo dekada  
 LESAKA | %10eko deskontua

**TriSani**  
 LAND | IQANTZI | %50 eta 3 SARRERAN eta %50 eta 3 SARRERAN eta %50 eta 3 SARRERAN eta %50 eta 3 SARRERAN (paktuetan berez) eta paketeetan izan ezin

**erein**  
 argitaletxea

**Lanku**

# 3. Kantu Zahar Afaria

## MENDIKO SAGARDOEGIA (IBARDIN)

APIRILAK 11, LARUNBATA 20:30



*Parte hartzaileak:*

ZUBIETAKO JOALDUNAK  
BANKAKO MENDITARRAK (Abeslariak)  
AITOR MENDILUZE (Bertsolaria)  
UNAI AGIRRE (Bertsolaria)  
EÑAUT AGIRRE  
(Pernando Amezketarraren Bertsoak)  
FRANZISKO SANTSOTENA (Eskujolea)  
AITOR IBARRA (Tronpeta)  
ANGEL MARIEZKURENA  
(Antolatzailea)

Afari eder bat  
+ liburua

# 45€

IZEN-EMATEA: 948 630 302 | 670 365 011



## GURE ESKUALDEKO MERKATARITZA GUNEA

<p><b>Jantzi-dendaK</b></p> <p>MANGO Deigual.</p> <p>LACOSTE Levi's</p> <p>Calvin Klein</p> <p>RIP CURL Pepe Jeans.</p>	<p><b>Lurrin-dendaK</b></p> <p>CHANEL D&amp;G CH</p> <p>Dior LANCÔME GUCCI</p> <p>DKNY Jean Paul GAULTIER</p> <p>YVES SAINT LAURENT Thierry Mugler</p>	<p><b>Janari-dendaK</b></p>	<p><b>Gasolindegia</b></p> <p>prezio merkeenetan</p>	<p><b>Jatetxeak</b></p>
---	--	-----------------------------	--	-------------------------



# Ibardin

EUSKAL KOSTAKO MENDIA Uste baino hurbilago!



URTE OSOAN IREKIA, IGANDEETAN ERE

BAGOAZ BAGUZI BAGAZI  
HAZIZ  
ttipi-ttapa haziz!  
TTIPI-TTAPA

**AUKERA BERRIA!**  
**DAGOENKO ZURE ESKURA!!!**



zuk 50€ ttipi-ttapari ematen badizkiozu  
40€ berreskuratuko dituzu  
2015eko errenta aitortzean  
% 80ko desgrabazioa errenta aitortzean



...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapak?

- Aldizkaria hamabostero argitaratu eta zure etxera eraman
- Web orriaren eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Eskualdeko berriak landu...



ETA GUZTIA  
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ



**MEKONA**  
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Mallerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa bazara guk deituko dizugu.

Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu

**948 635 458** telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri [bagoaz@ttipi.eus](mailto:bagoaz@ttipi.eus) posta elektronikoan